

DATORRENA

Pepe Mujicaren ikasgaia

MIKEL URDANGARIN IRASTORZA > 3

GIZA ESKUBIDEAK: Gerra
krimenak, bakearen «hiru
arkitektoen» begiradapean > 4

2025eko maiatzaren 31a | XIX. urtea • 929. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



BOTILEROAK: FINALA ESERITA ERE JOKATZEN DA

GORKA ALTUNA ETA IKER IRIARTE
IZANGO DIRA BIHARKO FINALEAN ALTUNA
ETA ARTOLAREN BOTILEROAK.
PROTAGONISTA NAGUSIEN AHOLKULARI
ETA KONPLIZE, BI ALEGIARRAK ERE
BURUZ BURU JARRI DITUGU. > 12 Jon URBE | FOKU

Arduraduna: Amagoia Mujika Telleria. **Erredakzioa:** Asier Aiestaran Iruretagoiena, Mikel Urdangarin Irastorza.

Argitaratzailea: Astero. **Lege Gordailua:** SS-77/07. **Helbidea:** Portuetxe 23-2a. 20018 Donostia. P.K.: 1099. Tel.: 943 31 69 99 / Faxe: 943 31 69 98. **e-posta:** info@gaur8.info. **Publizitatea:** Euskal Prensa. Tel.: 94 424 72 06.



Hiru ahots desberdin, «bakea eta gerra krimenak» gaitzat jarrita 04

Hego Afrikako zuriak dira Trumpek onartzen dituen «iheslariak» 08

Gorka Altuna eta Iker Iriarte, gertutasuna ezaugarritzat izango duen finaleko botileroak 12

Pantaila txikian: Polizia-indarkeria telesailen begiradapean 17

Natura eta euskara, Hernaniko Urumea Ikastolako hezigune 22

Euskal Herria digitala: Teknopolitika, askapenaren eta kontrolaren artean 28

Juantxo Egañaren behatzulotik 31



SINADURAK:

03 **Mikel Urdangarin Irastorza:**

Pepe Mujicaren ikasgaia

10 **Ula Iruretagoiena Busturia:**

Hiperdomestikotasuna

11 **Iraitz Mateo Gogorza:**

Trantsizioko metala

16 **Amaia Ballesteros**

20 **Joanes Lameirinhas Ortuoste:**

Suizidioa adineko pertsonetan: gutxietsitako errealitatea

21 **Iker Barandiaran:** Aldaketaren margoak

26 **Itzea Urkizu Arsuaga:** Urrun dagoena

26 **Miren Azkarate Badiola:** Inor ez dadila besarkada hori eman gabe geratu

30 **Maite Oronoz:** Eta adimen artifiziala erabiliko bagenu gure osasuna hobeto ulertzeko?



{ datorrena } Mikel URDANGARIN IRASTORZA

Pepe Mujicaren ikasgaia

Pepe Mujica «itzultzerik ez dagoen lekura» abiatu da. Heriotzarekin borrokan aritu bada ere, oraingoan herio «sega prest» eta zorrozuta etorri da eta ez du hutsik egin. Alde eta molde guztietako jendea hunkitu gara. Izan ere, bere ibilbidea beste milaka militanteren eskutik egin badu ere, Mujicak izan du zer berezi bat. Zer da, ordea?

Joxe Azurmendik esaten duen bezala, krisi garaietan pentsamendua antropologizatu egiten da: «Etxepea hondatu zaionean, gizon-emakumeak bere buruarekin topo egiten dizu nonbait, eta bere buruaren korapiloekin». Egun antzeko atakan gaudela esango nuke: zerumuga kolektiboak urratuta, hortxe gabiltza gure buru eta korapiloak kudeatu nahian. Irakurrirenetakoak diren autolaguntza liburuei gainbegiratu bat eman besterik ez dago: «Zer da gizakia?», «Zein da bizitzaren zentzua?»... Ñabardurak ñabardura, ezinegon horiek baretzeko ahaleginak dira.

Horren jakitun, neoliberalismoa bataila hori betebetean jokatzen ari da. Thatcherrek esan zuen bezala, «ekonomia da metodoa, helburua arima aldatzea», eta jo eta su ari dira printzipio neoliberalak gure arimetan zizelkatzeko ahaleginean. Era oso sotilean egiten dute, gainera. Modan jarri diren *coach* ugari, esaterako, ezinbesteko katebegiak dira: kirolerako aholkuak ematearen aitzakian, bizitza ulertzeko modu oso bat planteatzen digute: «Zu ere errua besteei botaz? Utzi aitzakiak! Zu (bai, ZU) zara zure arrakasta eta porroten erantzule bakarra». Behin hori abiapuntutzat jota, nola ez da ba zentzuzkoa izango behar beste sakrifikatu ez diren «looser» eta alferrei dirulaguntzak kentzea?

Youtuber askok ere beste horrenbeste egiten dute. Ohiko irudikapenaren kontra, bideo motzak ez ezik ordu luzeetako saioak ere egiten dituzte, eta munduaren errelato oso bat zabaltzen dute: neandertaletatik gaur egungo gizakiotara, oihaneko lehia etengabe bat marrazten dute. Horien buru, merezimendu osoz, indartsuenak. Badakigu zein den kontrapartea: nagusi izatea lortu duenak zergatik ordaindu behar du zergetan berak (eta berak bakarrik) irabazi duenaren zati

bat? Gehien merezi dutenek gehien eman? Ez dago eskubiderik! *Ergo*, eskubidea da bidea.

Pepe Mujicak ezin hobeto ulertu izan du borroka ikusezin horren garrantzia. Berak azaldu izan duenez, botere-sistemak ez dira soilik jabetza erlazioak, ezta aberastasuna sortu eta banatzeko era jakinak ere. Hori izateaz gain, «giza jokabidea arautzeko kultura subliminalen eraikitzaileak dira», gizakia, bizitza eta mundua ulertzeko era «naturalak» definitzen dituztenak. Horren aurrean, ez da nahikoa enpresa estrategikoak nazionalizatzea, ezta «programa, programa, programa» definitzea ere. Bere hitzetan, «borroka horren guztiaren erdigunean kultura desberdin baten erai-kuntza egon behar da», eta horretarako, neurri politiko eta ekonomikoak gauzatzeaz gain, ideiak eta balioak «erein» behar dira, bestelako zentzu komuna ernatu dadin.

Tupamaroak, hain zuzen, horixe egin du. Ardura eta neurri instituzionalak garatzeaz batera, «munduaren errelato» alternatiboa zabaldu du, hizkera xehe be-

«Neurri politiko eta ekonomikoak gauzatzeaz gain, ideiak eta balioak 'erein' behar dira, bestelako zentzu komuna ernatu dadin»

zain ederrean: bizitzaren miraria, gizaki kooperatiboa, «plataz» haragoko bizi zentzuak... Nire ustez, horrexek egin du berezi, eta horri eskerrak lortu du hain sektore ezberdinekin konektatzea.

Errelato horrek arriskuak ere baditu, noski. Bere figura eta esaldiak despolitizatzen eta eslogan merke bilakatzen saiatuko da sistema, beste askorekin egin bezala: «Bizitzan arrakasta izatea ez da irabaztea, erortzen zaren aldiro altxatu eta berriz hastea baizik», esango diote kale gorrian utzitakoari. Alabaina, egitasmo politiko eraldatzaileekin uztartuz gero, bulkada kolektibo berriak piztu eta sektore berrietara heltzeko sekulako potentziala izan dezake.

Zure sustraiaetik sei kilometro eskasera, eskerrik asko, Pepe! Lurak goxo har zaitzala. •

GERRA KRIMENAK, BAKEAREN «HIRU ARKITEKTOREN» BEGIRADAPEAN

Ainara LERTXUNDI

Carlos Martin Beristain ikertzaileak, Ana Cristina Navarro kazetari kolonbiarrak, eta Pili Zabala sekretu ofizialik gabeko memoriaren aldeko aktibistak Kazetarien Euskal Elkarte eta Ikastetxeak antolatu zuten «Bakea eta gerra krimenak» hitzaldian esku hartu zuten.

Izenburu hau aukeratu dugu, egungo gerra, desinformazio, informazioaren manipulazio eta propaganda testuinguru distopikoan bakean pentsatzera gonbidatzen gaituelako. Gerra hibrido batean murgilduta gaude. Joseph Goebbelsek hala ezarri zuen propagandaren hamaika irizpideetan: 'Aurkariaren gainean norberaren akatsak edo okerrak kargatu, erasoari erasoarekin erantzunez. Albiste txarrak ukatzerik ez baduzu, asma itzazu arreta galaraziko dieten beste batzuk'. Gatazkak, desberdintasun sozialak eta ekonomikoak, polarizazioa... horiek ezaugarritutako mundu batean bizi gara. Baina den-dena ez da negatiboa eta pertsona askok konponbideak eta justizia bilatzearen alde lan egiten dute», nabarmendu zuen Bilboko La Bolsa eraikinean egin zen mahai-inguruko aurkezleak, Carmen Peñafielek.

Aretoa txiki gelditu zen. Hizlarien artean zen Carlos Martin Beristain, Psikologian doktorea, Latinoamerikan eta munduko beste leku batzuetan eman diren giza eskubideen urraketen ikertzailea. Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrean hainbat aldiz peritua izateaz gain, Nazioarteko Zigor Gorteko biktimei buruzko aholkulari gisa lan egin du.

Bere ondoan, Pili Zabala, GALEk Joxean Lasarekin batera bahitu eta desagerrarazi zuen Joxi Zabalaren arreba eta bakearen eta sekretu ofizialik gabeko memoriaren aldeko aktibista. Berridatzi Bizikidetza Josteko Ellarte elkarteko lehendakariordea.

Ana Cristina Navarro kazetari kolonbiarrak 24 urtez TVEn lan egin zuen, 1972tik 1996ra, eta 1972tik 1976ra Informe Semanal idatzi zuen. 2018tik 2022ra Pedagogia koordinatzailea izan zen Kolonbiako Egiaren Batzordean. Gaur egun, alderdi politiko desberdinetako gazteekin ariketa bat antolatzen du gatazkaren ez errepikatzea lantzeko. Hirurek, bakeari, bizikidetzari, erreparazioari, gerra krimenei, nazioarteko zuzenbideari... buruz sakon hausnartu zuten, Julio Flor kazetari eta idazlearen gidaritzapean.

«Bakea gerra baino askoz zailagoa da. Bakea da eskuartearen dugun erronka. Bakea grina eta oinarritzko



Pili Zabala, Ana Cristina Navarro eta Carlos Martin Beristain, «Bakea eta gerra krimenak» hitzaldia hasi baino lehen.

Aritz LOIOLA | FOKU

giza eskubide gisa ulertuta. Bakearen hiru arkitekto ditugu gaur hemen. Carlos torturaren biktimei arreta emanek hasi zen giza eskubideetan murgiltzen, asilo-eskatzailen eta tortura horren biktimen txosten medikoak eginez Latinoamerikan, desagertuen senideekin lan egiten. Pertsonen interesatzen hasi zen, ez bakarrik zauri fisikoez, baita zauri psikologikoez ere: bere familia, bere ingurua, fokua dimentsio psikosozialean jarritz eta memoria eta egia lan-tresna gisa hartuz. Duela urte asko ezagutu genuen elkar. Carlos, nola jasan daiteke hainbeste min eta sufritu?», galdetu zion lehenik Florrek.

«Sufrituendua pairatu behar dutenak biktima zuzenak dira, eta haien ondorengoak. Lan honen ardatzetariko bat gerrak, torturak, giza eskubideen urraketa apurtutako konfiantza bererraitzea da. Hitz egin ahal izateko, konfiantza behar da. Biolentziak mesfidantza handia sortzen du, Estatuaren ganako eta instituzioenganako uste

ona apurtzen du. Bidea bi norabidekoa dela esaten da. Galdetzeraz joaten bazara, zerbait egin behar duzulako da; zerbait irakastera bazoaz, zerbait ikastera zoazelako da. Nire lanean, nire bidaie-tan, gauza asko jasotzen ditut; pertsonaren alboan jartzeko prest egon behar duzu. Nik hala ulertzen dut lan psikosozial hau. Egia garrantzitsua da biktimen zat; biktimei egitarako duten eskubidea bahitu nahi diete beti. Akusatuko dira, estigmatizatuko dira, kriminalizatuko dira, deshumanizatuko dira, eta haien kontrako ekintza behin eta berriz justifikatu da. Jasanezina denari izena jartzea garrantzitsua da, baina horretarako, konfiantza beharrezkoa da», esan zuen Beristainek.

Lehen urratsa, hortaz, «humanizazioa» dela gaineratu zuen. «Batzuetan giza eskubideen urraketei jartzen zaien izenarengatik eztabaidatzen galtzen dugu denbora, arreta beste nonbait jarritz eta ez benetan garrantzitsua den horretan; gerra krimenak direla, edo



gizateriaren aurkako krimenak, edo... Zoritzarrez, jendea gero eta gorrago dagoen momentu batean bizi gara. Hiru testuinguru desberdin dituzten hiru herrialdetatik etorri berri naiz, eta herrialde bakoitza bestea baino bakarrago dago bere historian», adierazi zuen Beristainek.

BESTEAREN ISPILUAN IKUSI

Bere hitzetan, oso garrantzitsua da bi- zipenak elkartrukatzeta eta «norberaren burua bestearen ispiluan ikustea. John Berger poetak esaten zuen bezala, mina ezin da partekatu, baina sufri- mendua partekatzeko ahalegina bai. Eta ahalegin horretatik erresistentzia bat sortzen da». «Bizikidetzeta berreraikitze- ko lehen urratsa zure istorioa kontuan hartu izana da. Beste- ari entzutea da erre- konozimendua dakarrena, ez bakarrik gertatu zena, baizik eta bik- timen duintasuna eta iraganaren azterketa kritikoa, iragana izateari utzi nahi ez dion iragana», plazaratu zuen.

Kazetarien Euskal Elkartea eta Ikastetxeak Bilboko La Bolsa eraikinean antolatutako hitzaldia. Aritz. LOIOLAJ FOKU

Pili Zabala: «Informe Semanal-en Argentinako desagertuen inguruko erreportaje bat ematen zuten. Joxi eta Josean desagertuta zeuden, baina erreportajeetan ez ziren inoiz agertzen. Zergatik ote zen galdetzen nion neure buruari»

Carlos Martin Beristain: «Lan honen ardatzetariko bat gerrak, torturak, giza eskubideen urraketa- k apurtutako konfiantza berreraikitzea da. Hitz egin ahal izateko, konfiantza beharrezkoa da»

Ana Cristina Navarro kazetari kolon- biarrak dio FARC-EP eta Juan Manuel Santosen Gobernuaren arteko negozia- zio prozesuaren ondorioz sortutako Egiaren Batzordeak «urteekin mugarri bat suposatuko duela, baina oraindik ez dela nabaritzen». Batzordearen txostena «ezagutzen eta ezagutarazten ari gara. Hastapenetan gauden arren, ikastetxeetatik hasi dira deika Batzor- dearen ondorioak ikasgeletan azaltze- ko eta horiek ikasleekin partekatzeko. Biktimentzat Egiaren Batzordea justi-

zia kontu bat da, sekula ez baitzuten modu horretan errekonozituak izateko aukerarik izan. Ia jaio nintzenetik, 1949an, gerran egon gara. Denbora tar- te txikiak salbu, ez dut bake garairik ezagutu Kolonbian. Hala ere, jendeak izugarrizko erresilientzia eta aurrera egiteko gaitasuna du. Baina ez dugu bakea lortuko, eskusioarekin amai- tzen ez dugun bitartean», nabarmendu zuen Navarrok bere hitzartzean.

Ildo horretan, nabarmen utzi nahi izan zuen, «mundu honetan okerrera bazterketa» dela: «Bestea baztertzea nire azal kolore bera ez duelako, klase sozial berekoa ez delako, ni bezala pen- tsatzen ez duelako. Txostenak hori guztia lantzen laguntzen digu».

BIKTIMA «IKUSEZINAK»

Pili Zabalak «ikusezinak egin dituzten biktimak» mahai gainean jarri zituen. «Oraindik orain, Euskal Herrian giza eskubideen urraketa- k pairatu dituzten biktima ikusezinak daude, ezagutzen ez ditugunak. Eta zergatik ez ditugu ezagutzen? Ba historiak berak erantzut- ten dio galdera horri. Biktima baten- tzat konfiantza hitza garrantzi handi- koa da. Nora jo dezake Estatuaren aldetik giza eskubideen nolabaiteko urraketa- ren bat pairatu duen biktima batek? Euskal Herrian atxilotuak izan diren- tzat, atxilotuak izan gabe eta deus ere galdetu gabe hil dituzten- tzat, justizia ez da justua izan. Ikusezi- nak diren biktimei buruz hitz egiten dudanean, pertsona horiei buruz ari naiz. Horietako batzuk ezagutzen ditu- gu, denborarekin publiko egin direlako edo haien gertukoei esker aurrera egi- teko gai izan direlako. Estatuak babes- tu behar zituen, horretarako baitaude Estatuak, desberdintasunak sortu gabe herritar guztiak babesteko, alegia. Bai- na, zoritzarrez, egun oraindik sailka- pen bat egiten da: ez pairatu den giza eskubide urraketa motaren arabera- koa, baizik eta urraketa- ren erantzulea- ren arabera- koa. Eta hori da inoiz gerta- tu beharko ez litzatekeena».

Florrek Jose Mugica Uruguako presi- dente uruguaitarren esaldi bati aipa- mena egin zion: «Berak esan ohi zuen



mundua aldatu nahi izan zuen belau-naldi batekoa zela, baina zanpatuak, garaituak, lainoztatuak izan zirela, baina oraindik ere amets egiten duela, borrokak merezi duela, jendea hobeto eta berdintasunaren zentzu handiagoarekin bizi ahal izan dadin. Zein da gerraren irakaspena eta egiaren batzorde baten baliagarritasuna, Carlos, Cristina, Pili?».

«Egiaren Batzorde bat errekonozimendurako marko sozial zabal bat da ukatuak izan diren pertsonentzat. Hel-muga ez da txosten bat egitea, baizik eta elkarrizketarako gune bat izatea, etsaiaren kontzeptua eta bazterketa gainditzea. Eztabaidatzeko tresna berriak bilatu eta eraikitzeke gune bat da», azaldu zuen Beristainek.

Ondorioen gizarteratzea faktore askoren mende dagoela gaineratu zuen. Argentinan, adibidez, gogoratu zuenez, CONADEPen txostena «*bestseller* bat izan zen urte askotan. El Salvadorren, ordea, Egiaren Batzordearen txostena ez zuten 17 urtetan publikatu. Herrialde horretan ondoren gertatu den guztiak gatazka ixteko moduarekin zerikusia du. El Salvador beste bat izango litzateke Ignacio Ellacuria, Segundo Montes, Ignacio Martin-Baro, Amando Lopez, Juan Ramon Moreno eta Joa-

quin Lopez hil izan ez balituzte. Guatemalan, Juan Gerardi gotzaina hil zuten, militarrek egindako giza eskubideen bortxaketak salatzen zituen agiria argitara eman eta bi egunetara. Egiari bidea ixteko saiakera bat izan zen. Hau esanda, luzatu nahi dudana gogoeta hurrengoa da: nola transmititzen da egia hurrengo belaunaldietara? Egiak prozesu pedagogiko bat behar du, eta politika publikoak behar ditu. Zenbat urte behar izan dira Estatu espainolean frankismoaren edo GALen biktimei buruz hitz egin ahal izateko? Egiak orainari begiratzeko eraldaketarako prozesu bat izan behar du. Memoria ez da gauza fosila izan behar, ez da soilik iraganean gelditu behar, orainari ere begiratu behar dio, egungo gaiei, esaterako, arrazakeriari, eskusioari, eta abar.

Cristina Navarro: «Denbora tarte txikiak salbu, ez dut bake garairik ezagutu Kolonbian. Hala ere, jendeak izugarrizko erresilientzia eta aurrera egiteko gaitasuna du. Baina ez dugu bakea lortuko, eskusioarekin amaitzen ez badugu»

«Ez bagara gizarte eta kolektibo gisa arduradun sentitzen, funtsezkoa den zerbait galtzen ari gara; are gehiago, babesgabeko zibilak bonbardatzen ari direnean», plazaratu zuten Bilbon egindako mahai-inguruan

Carlos Martin Beristain giza eskubideen ikertzailea eta Ana Cristina Navarro kazetari kolonbiarra.
Aritz LOIOLA | FOKU

Bestela, errealtatetik urrun, iraganari loturiko pantaila bat izango genuke».

Navarro bere esperientzia aipatu zuen. «Kolonbiako 18 hiritan gazte mugimendu bat aktibatzea lortu genuen. Lehen aldiz, biktima eta biktimarioak elkartu zituen prozesu baten berri zutela esan ziguten. Ziur asko prozesu pribatuak egon direla, baina ez Egiaren Batzordearen ezaugarriekin. Azken txostena ezagutarazteko pedagogia lana egiten ari dira gazte horiek. Jendeari arreta gehien ematen diona biktima eta biktimarioen arteko topaketak dira; jakitea, adibidez, FARC-EPko gerillari ohiak hil zuten gobernadorearen seme-alabekin bildu zirela. Egiaren Batzordea osatu arte, Kolonbian ez zen horrelakorik gertatu. Hori da gazteei harridura gehien sortzen diena. Kolonbia oso klasista da. Oligarkiek ez dituzte azpikoak onartzen, eta ez dute pentsatzen eskubide berdinak dituztenik. Gatazka ikuspegi desberdinetatik ikusten hasten dira», helarazi zuen.

MINAREN TRANSMISIOA

Zabalaren esperientziatik, «gazteek gatazkari buruz ezer gutxi dakite, minaren gainean hitz egitea asko kostatzen baitzaigu. Euskal gizarteak asko sufritu du, hori ukaezina da. Urte batzuetan, hainbat eskolatan eta ikastetxetan testigantza eman dut. Deigarria da zer nolako arreta jartzen duten gazteek zure bizipenak kontatzen dituzunean. Egiten dituzten galderengatik ondorioztatu daiteke inork ez diela gatazkari buruz hitz egin. ‘Ba, niri hori ez didate inoiz kontatu’, esaten dizute».

Transmisioa berebizikoa dela nabarmendu zuen: «Kezkatzen nau ikusteak gizarte bezala nola egiten ari garen transmisioa; mina ezagutu behar da, nahiz eta mingarria izan. Transmisioa gertatutako guztia ezagutzera bideratu behar dugu, berriro gerta ez dadin. ‘Inoiz ez gehiago’ bermatu behar dugu».

Kolonbiara itzuliz, Navarrok ondorengoa esan zuen: «Gerra leku batean zaudenean eta gatazkaren arduraduna den agintariaren aurrean esertzen zarenean, konturatzen zara herrialdea-

ren %99k ez diola inoiz aurpegia jarri arduradun horri, eta hortaz, ezin izan diola inoiz begietara begiratu, 'zergatik egiten diguzu hau' galdetzeko. Egia bilatzea lanbide liluragarria da, baita oso zaila ere. Egiaren Batzordean bi gazte motarekin egin dugu lan. Gauza bat zen gatazka-guneetako ikastetxeetara joatea, non gatazka bizirik zegoen eta aita mehatxupean egon zitekeen, edo gerrillan, edo paramilitarren artean. Testuinguru horretan, gazteek ezin zuten hitz egin, beldur zirelako. Mutil horiei Bogotako ikastetxe batekoak kontrajartzen zaizkie, non gatazkak, oro har, ez dien eragiten. Bi egoera oso desberdin dira, egiaren eta egiari emango litzaiokeen hedapenaren aurrean».

Beristainek, bestalde, Guatemalako esperientzia bat gogora ekarri zuen. «Memoria historikoa berreraikitze txosten batean ari ginen lanean. Hasieran hiru liburuki izan behar zituen. Baina testigantzak biltzen hasi ginean, laugarren liburuki bat atera zen, 'izugarrikeriaren mekanismoak' deitu genion. Nola da posible bizilagunak zu akabatzea? Bosnian, Srebrenican... gertatu zen bezala, okina bizilagunaren frankotiratzaila bilakatu zen. Guatemalan, Autodefentsa Zibileko Patruilak komunitateetako kideak behartuta errekrutatu zituzten, komunitateko beste kideen aurka egiteko. Nola da posible puntu horretara iristea?».

«IKASITAKO EZINTASUNA»

Hori ahalbidetzen duten diskurtsoez ohartarazi zuen: «Gu eta haiek; ez baduzu zuk egiten, besteek egingo dizute zuri; beldurraren erabilera; obediencia eta hierarkiak...». Diskurtso horretan, ardurak erdibitu egiten dira: «Bomba atomikoa jaurti zuena ez da arduraduna soilik botoi bat sakatu zuelako, eta lehergailua asmatu zuena ere ez, zeren ez zekien zer erabilera emango zioten. Izugarrikeriaren sekuentzian inor ez da arduradun. Bigarren Mundu Gerran, esaterako, erantzule bakarra Hitler izan zen eta erotuta zegoen. Ez bagara gizarte eta kolektibo gisa arduradun sentitzen, funtsezkoa den zerbait galtzen ari gara; are gehia-



Pili Zabala, moderatzaile lana egin zuen Julio Flor kazetariarekin.
Aritz LOIOLA | FOKU

go, babesgabeko zibilak bonbardatzen ari direnean. Ikasitako ezintasunaren korapiloan erortzeko arriskua dugu».

Nola gaingitu «ikasitako ezintasuna»? Kolonbiako San Jose de Apartadoko esperientziari erreferentzia egin zioten Beristainek eta Navarrok. Gatazkak eragindako biktimen %10 biltzen ditu herri horrek. Herritarrek «bake komunitate» bat sortu zuten 1997ko martxoaren 23an. Talde armatuekin –gerrilla, Armada edo paramilitarrak– kolaboratzeari eta legez kontra erabiltzen diren laborantzei muzin egiteko hautua egin zuten. «Gobernu kolonbiarrak kristorenak esan zituen bake komunitate honen kontra; gerrillariak, hiltzaileak... zirela esan zuen, soilik aipatzeagatik gerrarekin zerikusia zutenekin ez zutela deus ere jakin nahi. 'Guk bakean bizi nahi dugu' esaten lehenengoak izan ziren. Ez Gobernua-rekin, ez gerrillarekin, ez Armadarekin ez zuten egon nahi», helarazi zuen Navarrok.

Zabalak 13 urte zituen polizia lehen aldiz bere etxera joan zenean, 1981eko azaroan. «Eguerdiko hamabiak ziren. Anaiaren bila etorri ziren. Etxea hankaz gora utzi zuten. Bigarren pasarte traumatikoa 1982an izan zen. Orduan, Guardia Zibila etorri zen metrailetak eskuetan, atea puskatu zuten. Ohetik

altxarazi gintuzten. Bi gertaera horien ostean gure amak deus ere ez kontatzeko eskatu zigun, gertatutakoa familia artean gelditu behar zela. Okerrena, errefuxiatuen komunitateko batzuk Josean eta Joxi ez zirela agertzen esatera etorri zirenekoa izan zen. Nik 15 urte nituen. Helburu bakarra haiek bilatzea zen, edozein desagertzen gertatzen den bezala. 26 urte nituela agertu ziren gorpua. 1983. urtean Argentinako diktadura amaitu zen. Informe Semanal programan beti desagertuen inguruko erreportaje bat ematen zuten. Joxi eta Josean desagertuta zeuden garai horretan, baina Informe Semanal-ek egiten zituen erreportajeetan ez ziren inoiz agertzen. Zergatik ote zen galdetzen nion neure buruari. Bizitako guztiak giza eskubideen defendatzaile erradikal bihurtu nau. Kale mailan babes handia jaso bagenuen ere, erakunde aldetik ez zen berdina gertatu. Asko interesatzen zait jakitea gizakia zergatik den gai beste gizaki bati izugarrikeria hori nahita eragiteko».

«Memoriak egiari eta errekonozimenduari ateak irekitzen dizkio. Ez da kontua atzera begiratzea tortikulisa bagenu bezala. Oroimenak askatu egiten gaitu iragan traumatikotik. Ahanzturak iraganari lotuta jarraitzea konde-natzen gaitu», esan zuen Beristainek.

«IHESLARI» PRIBILEGIATUAK

Errefuxiatuei ateak itxi, eta afrikaner zuriei ireki dizkie Washingtonek

📁 AEB-KO POLITIKA / Urtzi URRUTIKOETXEA

Etxe Zuriak ateak itxi dizkie kanpotik sartu nahi dutenei, eta barruan dauden asko ere kanporatzen ari da. Ia salbuespenik gabeko politika izan da: Afganistanen Estatu Batuen alde lan egin dutenak, babes-estatusa zeukaten Amerika Erdialdeko biztanleak, eta umetan iritsi eta ia beste herrialderik ezagutu ez dutenak ere, orain arteko programetatik kanpo geratu dira eta deportatzeko mezuak jaso dituzte eurretako askok. AEBetara etortzeko onarpena zuten 120.000 lagunek egun batetik bestera dena bertan behera geratzen zela ikusi zuten, batzuk dagoeneko erbestean zeudela.

Testuinguru horretan, oso gizatalde berezi bati egin dio harrera Etxe Zuriak. Maiatzaren hasieran, 59 afrikaner zuri zekartzan hegazkinak lur hartu zuen Washington hiriburu-ko Dulles aireportuan. Bertan, zeremonia berezi batekin egin zieten ongietorria. «Jakín eza-zue hemen benetan ongi etorriak zaretela eta errespetatzen dugula azken urte hauetan bizi behar izan duzuen», adierazi zien Christopher Landau AEBetako Estatu idazkariordeak aireportuan bertan.

Etxe Zuriaren gezurretako argudioaren arabera, Hego Afrikan nekazari zurien aurka-ko «genozidioa» dago, eta horregatik abiarazi dute AEBetara ekartzeko programa. Horretarako, hiru baldintza jaso ditu Hego Afrikan Estatu Batuek duten enbaxadak: Hegoafrikan nazionalitatea izatea, etnikoki afrikanerra (edo beste arraza-gutxiengo batekoa, hau da, ez beltza), eta iraganeko jazarpen-esperientzia

Donald Trumpen agintaldiak hasieratik izan duen konstanteetako bat izan da immigrazioaren aurka egitea, ia salbuespenik gabe. Horregatik, are esanguratsuagoa izan da hegoafrikaner zuriei egindako ongietorria eta errefuxiatu izaera onartzea, gezurretako genozidio baten aitza.



bat edo etorkizuneko jazarpenaren beldurra azaltzea.

Charl Kleinhaus nekazariak, esaterako, mehatxuak jaso zituela eta bere ondasunak kendu nahi zizkiotela argudiatu zien arduradun estatubatuarrei. Ez zuen salaketaren frogarik edo bestelako daturik eman behar izan.

Paradoxan sakontzeko, Kleinhausi berriki aurkitu zaizkion sare sozialetako mezu antisemitak daude. «Juduak ez dira fidatzekoak, arriskutsuak dira», idatzi zuen, eta eskuin muturreko bideo bat ere partekatu zuen «legez kanpoko etorkinei tiro egingo diegu» esanez. Geroztik, mezuak ezabatu ditu, baina Etxe Zuriaren joko bikoitza agerian uzten du: unibertsiteetan palestinarren aldeko ekintza orori antisemita deitzen diote –eta ikasle atzerri-tarren kasuan, bisa bertan behera uzteko motibo bihurtzen da–, baina eskuin muturreko benetako mezu antisemiten kasuan, arazorik gabe lortzen dute errefuxiatu estatusa. Are okerrago, Barne Segurtasuneko Sailak etorkinen sare sozialak behatu dituela iragarri berri du, eta antisemitismo arrastorik aurkitzekotan, immigrazio-eskaerak ukatzeko motibo bihurtuko dela dio.

Hego Afrikatik iritsitakoekin ere asilo-eskatzaille guztiekin izaten den behaketa zorrotza izan dela dio Etxe Zuriak. Errefuxiatuen prozesamenduak oso luze jotzen du AEBetan; hilabeteak, eta urteak ere izan daitezke.

Oraingo honetan berariaz azkartu dute prozesua. Errefuxiatuen Nazio Batuen Erakundeak parte hartzen du horrela-koetan gehienetan, eskaerak hala direla egiaztatzen. Afrika-

nerren kasuan, NBERen erakundeak ez du inolako rolik jokatu.

LUR GEHIENAK

Hego Afrikako Gobernuak ur-tarrilean onartutako lege batak lur-jabe handien sailen zati bat bereganatzea ahalbidetzen du, «justiziazkoa eta orekatua denean eta interes publikoa dagoenean». Hego Afrikarren ehuneko zazpi izan arren, nekazaritza-lurren ehuneko 72 zurien esku daude.

Legea indarrean sartu zene-tik behin ere ez da gauzatu lurren desjabetze hori, eta hala ere, Washingtonek berehala ezarri zizkion zigorrak Hego Afrikari. Martxoan, herrialdeak Estatu Batuetan zeukan enbaxadorea kanporatu zuten. Giza-laguntzarako zeuzkat-en milaka milioi dolar ere eten ditu Trumpen Gobernuak.

Horren ondorioz, HIV eta HIESerako programek sekulako astindua hartu dute Hego Afrikan. Zortzi milioi lagunek dute birusa herrialdean, bost herritarretatik batek.

Trumppek berak onartu du Washingtonen jarreraren atzean Elon Musk munduko gizon aberatsenaren presioa dagoela. Azken asteotan lehen lerrotik desagertu bada ere, Trumpen garaipenaren finantzatzaile nagusia izan zen kanpainan, eta presidentearen pare egon zen agintaldiaren hasieran (demokrata batek baino gehiagok «Musk presidentea» esan ohi zuen bur-lahaizez). Hegoafrikar jatorriko handikiak «zurien bazterketa-ren» ideia txertatu zuen Trumpen Administrazioan.

Duela hamar egun, Cyril Ramaphosa Hego Afrikako lehendakariari ongi-etorria



Ezkerrean, Elon Musk eta Donald Trump presidentea Etxe Zurian, pasa den martxoaren 11n. Goian, Trump Hego Afrikako presidente Cyril Ramaphosarekin, maiatzaren 21ean.
Molly RILLEY-XINHUA | EURO-PA PRESS

egin zion Trumppek Etxe Zurian. Arrisku handia hartu zuen Ramaphosak, baina baze-kien bere herrialdearen aurka-ko neurriek, laguntzak eteteak eta zerga-mugek kalte handia egingo zietela hegoafrikarrei.

Trumppek prest zeukan sega-da. Baina otsailaren amaieran Ukrainako presidente Volodi-mir Zelenskiri egindakoaren ostean, esan liteke Etxe Zurira doan edonork okerrenerako prest egon behar duela. Ra-maphosak ere ondo zekien ho-ri, eta negoziatzaile trebearen

ospea on eginez, talde-lanean prestatu zuen bisita. Trump-eko oso zabar jokatu zuen, genozi-dio-salaketak eginez, «orain zurien aurkako apartheid bat dago» esanez, eta «hil boer-a» (nekazari afrikanerra) oihuka-tzen zuen bideo bat jarri zuen kazetari guztien aurrean.

Oposizioak Julius Malema diputatuaren oihua zela gogo-ra ekarri zuen. Trumppek ez zuen etsi, sarraskiei omen ze-gozkien argazkiak erakutsi zi-tuen: gezurretakoak ziren, noski. Argazkietako bat Kon-

goko Errepublika Demokrati-kokoa zen, ez Hego Afrikakoa. Probokatzen hasita, «tamalez, ez daukat helikoptero bat zuri emateko» bota zion Ramapho-sak, Trumppek nahi zuen loka-tzetara behin ere jaitsi gabe.

Umil, taldean ekarri zituen gobernukide zuriei eman zien hitza, nekazaritzako minis-troari kasu, genozidiorik ez ze-la gogorarazteko. Beste ho-rrenbeste esan zuten taldean zetozen enpresari eta golf-jo-kalariak ere.

Ernie Elsen kasuan, Hego Afrikarekiko kritiko agertu zen, eta iragan arrazista age-rian utzi zuen, Estatu Batuek «Angolako gerran» emandako laguntzagatik. Apartheidaren erregimenak jasotako lagun-tza, alegia. Baina iraganak ira-gan, denek Hego Afrika maite dutela eta genozidiorik ez da-goela erakutsi zuten, Trumpen propaganda-asmo oro goitik behera erauziz.

Charl Klieinhaus nekazariak, esaterako, mehatxuak jaso zituela eta bere ondasunak kendu nahi zizkiotela argudiatu zien arduradun estatubatuarrei. Ez zuen frogarik aurkeztu

Trumppek prest zeukan segada. Baina otsailean Zelenskiri egindakoaren ostean, esan liteke Etxe Zurira doan edonork okerrenerako prest egon behar duela



Ula IRURETAGOIENA BUSTURIA - @ulissima5
Arkitektoa

Hiperdomestikotasuna

Arkitekturaren zeregin nagusietako bat etxebizitzaren inguruko lanak egitea da. Edo ez, baina aukera zabalagoak daude arkitekto baten ohiko ibilbide profesionalean etxebizitza bat zaharberritu edo eraikitzeko liburutegi publiko bat egiteko baino, arrazoi kuantitatibo batengatik bakarrik bada ere. Arkitektoa etxebizitzaren eraikuntzan inplikaturik dago, baina etxebizitzaren eskuragarritasunaren arazoa ez da gatazka espazial bat, merkatu higiezinak sortu eta mantentzen duen egoera bat baizik. Erosten den etxebizitzaren prezioetik, etxe-espazioen arkitekturaren kostua zati txiki bat izatera iritsi da, hain dago prezioa eskandaluan.

Etxearen prezioa albo batera utzita, etxebizitzaren bizigarritasunak ere debate zabala ekarri du. Etxe-bakarrekoea zein kolektiboa

izan, literatura arkitektoniko zabala ari da etxebizitzak nolakoak egin izan diren, egin behar diren eta nolakoak etorriko diren marraztuz eta kontatuz. Etxearen domestikotasunak jaso du gizarte garai bakoitzaren ezaugarri ekonomiko eta sozialen ondorioa. Higie-neak garbitasuneko gela iraultza bat sortu zuen etxeetan: komunaren ezinbestekotasuna, aireztapen eskakizunak, arropa eskegitzeko lekua, etxea garbitzeko erraztasuna material eta xehetasunetan. Sukaldeak elektrodomestiko txiki eta handiekin bete ditugu etxeko-lanak errazteko, etxe kanpoko soldatapeko lanak etxe-koen denbora zati handia hartzen hasi direnean. Kontsumo ohiturek, gainera, biltegitratzeko espazioak handitu egin dituzte, inoiz baino armairu eta apalategi gehiago behar dira geletan, inoiz ez dira nahikoa.

Azken urteetako iraultza etxebizitzaren domotika eta digitalizazioaren txertaketa izan da, teknologia etxeko bizitza erraztu nahi digulako. Etxebizitza gizakien txoko pribatua izan da betidanik, «etxetik barnerakoak etxean gelditzen dira», etxeko atearen bestaldean. Baina publiko eta pribatuaren banaketa, etxean egiten diren funtzioei dagokienean, desagertu egin da maila batean. Etxetik kanpo kontrola daitezke etxeetako ekintza asko: berogailua piztu, garbiketako gailua martxan jarri, labea programatu. Eta alderantziz, etxean burutu daitezke etxetik kanporako zeregin ugari: bankuko transferentziak, bazkaria etxera ekartzea, erosketa online-ak, zinema eta liburuak online, hainbat lanbideen bulego lanak etxetik egin daitezke, eta etxearekin harremanean diren kudeaketa gehienak etxeko zentraletik egingarriak dira eta, denboraren mugarik gabe, beti daude zabalik, gure eskaerak egiteko prest. Hodeiaren bitartekaritzak etxeko ekintzak publiko egiten ditu, algoritmoaren datu basera eramaten diren unean. Etxearen izaerak, domestikotasunak, espazialitate espezifikoa galdu du, eta domestiko leku asko bilakatzen dira.

Domestikoaaren hedapenak esan nahi du etxeko bizitzaren digitalizazioa lurralde telekomunikazio-sare batek, teknologia digitalak ekoizteko baliabide naturalek eta gailuak erosteko gaitasun ekonomikoak ahalbidetzen dutela. Domestikoaaren gaitasuna lurraldeetan zehar zabaltzen da, bizimodu azkarra eta eraginkorraren tranpa salduz eta oraindik ere etxearen hainbat zeregin subalternitatean utziz. •



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA

{ asteari zeharka begira } Iraitz MATEO GOGORZA

Trantsizioko metala

Aurkikuntzek mikrofono eta foku asko erakartzen dituzte, zerbait mugitzen digute barruan, ezinegona, ilusioa eta heldulekua ere izan daitezke aldi berean. Horren inguruan badaki zerbait Aranzadik, baita Sorioneku eskua tatuatuta dutenek ere.

Aste honen hasieran hurbildu zaizkio berriro argazkilarien flashak Aranzadiko lantaldeari, eta egiari zor, niri ere argazkia geratu zitzaidan iltzatuta. Tela beltz baten gainean bi eraztun ageri dira, urrezko bi eraztun –ez baita gauza bera–; eta urrea dagoen tokira erraz joaten da begia. Harri urdinkera bana dute eta bakoitzak grabatu bat, estilo berekoa, baina irudi eta esanahi ezberdinekoa. Batak aberastasunaren jainkosa du grabatuta, eta besteak gerlari bat.

Lehen eraztuna, aberastasunaren jainkosaren ikurra duena, 2018an aurkitu zuten Auritzen (Nafarroa Garaia), eta bigarrena da asteon aurkitutakoa; Donazaharren (Nafarroa Beherea) topatu dute. Egindako ikerketen arabera, Kristo Aurretik lehenengo mende ingurukoak dira, inoiz garai hori existitu baltz –Covid aurretik eta Covid ondoren mugarriak gehiago markatzen baititu zenbait belaunaldi–.

Euskal Herri osoan antzinako urrezko bost eraztun besterik ez dituzte topatu gaur arte, eta Ipar Euskal Herrian egindako lehen aurkikuntza da. Oraindik zutik dirauten jauregietan egongo da urrea oraindik, eta egongo dira eraztunak, baina horien aberastasunean fokua jartzea gehiago kostako zaigula uste dut.

Bi eraztun oso antzeko topatzearen kausalitateak zirrara sortzen du, are gehiago urte ezberdinetan eta herri ezberdinetan agertzen badira. Gehiago jakin asmoz zabaldu nuen Google Maps mugikorrean. Pantailari bi hatzekin atximur egin eta pixka bat urrundu nuen mapa, berdeguneak dira nagusi eta marra urdinak lotzen ditu mapan hautatutako bi puntuak. Beste

marra bat ere ageri da, hau beltza da eta urdinarekin perpendikularra, iparraldearen eta hegoaldearen arteko muga iradoki edota inposatzen du. Halere, gezi urdinari jarraika egindako lerro urdina garaile, Auritz - Donezaharre: 33,9 kilometro, 48 minutu.

50 minutu eskas markatzen ditu, autoz eginez gero. Jasangarritasunaren ikuspegitik garraio publikoaren aldeko apustua egiten duenak 20 ordu eta 39 minutu beharko lituzke, kalkuluaren arabera. Eta oinez egin nahi izanez gero, 8 ordu eta 14 minuturekin aski lirarteke. Auritz eta Donezaharre, beraz, gertu daude? Edo urrun?

Aranzadik prentsaurrekoan adierazi zuen bi eraztun berdinean horiek bi leku ezberdinetan aurkitzea herri horien arteko «lotura estuaren erakusgarri» zela. Izan ere, duela hamar urte hasi ziren Pirinioen ingu-

«Bi eraztun berdinean horiek bi leku ezberdinetan bi garai ezberdinetan aurkitzea herri horien arteko lotura estuaren erakusgarri da»

rua aztarrika, euskal lurraldea bertebratzen zuen erro-matar galtzada ikertzen hasi zirenean. Eta galtzada horri jarraika ondorioztatu zuten «objektuak, kultura eta ideiak» elkartzen dituztela bideek.

Bideak urratu egin behar direla ikasi genuen nerabezaroaren errebeldian, eta beste hainbatek gure bideak lurperatu dituztela. Urruntasuna eta gertutasuna ere bideen baitan eraiki ohi ditugu, ez da gauza bera gure imajinarioan 40 kilometro Bilborantz jo edo Atharratzerantz. Goizero irratan aipatzen diren A-15ak, N-21ak edota AP-1ak ez dute behar bezala gure herria bertebratzen. Nork erabakitzen du nola eraikitzen diren harreman bideak?

Urrea, kimikoki trantsizioko metala omen da, eta gu beti trantsizioko bideetan herren gabiltza. •

BOTILEROAK

Gorka Altuna eta Iker Iriarte, Buruz Buruko finalisten aholkulari eta konplize

PILOTA / Asier Aiestaran

Euskar pilotak bere-berea duen figura da botileroarena. Printzipioz ez da entrenatzailea izaten, eta ezta prestatzaile fisikoa edota psikologo ofiziala ere. Baina argi dago arlo horietan guztietan bere ekarpen-txoa egiten duela botileroak.

Igandean Bilbon jokatu den Buruz Buruko Txapelketaren finalean Gorka Altuna eta Iker Iriarte izango dira botileroak, Gorka Jokin bere lehen-gusuarena, eta Iker lagun mina duen Iñaki Artolarena. Biak alegiarrak izanda, bertako Intxurre elkartearen elkartu ditugu, botilero lanaren sekretuak –eta sekretu ez direnak– kontatuko dizkigutelakoan.

«Askotan ez dakit entzun ere egiten didan. Berak eskatzen didana da gainean egoteko, eta noizbait esan izan diot: ‘Gainean egoteko eskatzen didak eta gero kasurik ez didak egiten’», bota du barre artean Gorka Altunak Jokinek zer eskatzen dion galdetu diogunean. «Ume-umetatik ezagutzen dugu elkar. Nire amak Amezketa egiten du lan eta hara joaten nintzen amarengana. Jokin ere han izaten zen, eta ordu asko pasa ditugu batera Amezketa frontoian. Konfiantza sobera daukagu, errespetuz beti, elkarri edozer esateko», gehitu du.

Horra ba, botileroaren funtzioa ulertzeko gako nagusia: konfiantza, konplizitatea. Eta Iker Iriartek ere alderdi hori nabarmendu du: «Nire lanbidea eta bizimodua direla-eta, botilero lana baino gehiago uste dut eskertzen duela astean zeharreko ibilietan berekin egotea. Bai entrenatzera doanean laguntzea, elkarrekin bazkaltzen geratzea... Berari

Biharko Buruz Buruko Txapelketaren finalean begirada guztiak Jokin Altuna eta Iñaki Artolarengan jarriak egongo dira. Haiek dira protagonista nagusiak. Baina partidan zehar sarri-sarri entzungo ditugu Gorka Altuna eta Iker Iriarte botileroak aulkitik aholkuak ematen. Esaten dena baino, konplizitate harremana omen da garrantzitsuena.

denbora eskaintzea eta laguntasuna eskaintzea. Gero, partidetan, ahal dena. Ez dut uste, gainera, botileroak horrenbeste garrantzia duenik».

Gainera, kontuan izan behar da gaur egun partidetan botileroek mikrofonoa jarrita izaten dutela une oro, eta horrek ere mugatzen duela hein ba-


tean esan dezaketena. «Ni hasi nintzenean justu orduan jarri zituzten mikrofonoak, pandemiaren ondoren –dio Gorkak–. Horrelaxe ohitu gara. Egia esan, niri ez zait askorik gustatzen. Besteak entzutea bai. Iker, adibidez, gustura entzuten dut, zer esaten dion Iñakiri, nola eramaten duen...

Baina onartu behar da partidetan sartuta zaudenean nola-bait mugatzen zaituela, gauza batzuk ezin dituzulako lasai esan. Pilotariak arazo fisikoren bat baldin badu, edo eskuan mina, gustura galdetuko zenioke zer moduz dagoen. Baina ezin da, badakizulako dena entzungo dela eta hurrengo aurkaria ere adi egongo dela».

«Intimitate falta horrek eraman gaitu botileroak gero eta politikoki zuzenagoak izatera», iritzi dio Iker Iriartek. «Era berean, ni neu beste kirol bat ikusten ari naizenean, izan erremontea, izan arrauna, gustura entzuten ditut barne elkarrizketak. Ulertzen dut kirol ikuskizunarentzat mesedegarria izan daitekeela. Orokorra da, inguruko denek esaten di-

Gorka Altuna eta Iker Iriarte, Alegian egindako elkarrizketaren aurretik argazkilariak proposatutako ispilu jolasean.
Jon URBE | FOKU





” **Gorka Altuna:** «Askotan ez dakit entzun ere egiten didan. Eskatzen didana da gainean egoteko, eta noizbait esan izan diot: ‘Gero kasurik ez didak egiten’»

Iker Iriarte: «Iñakiri gustatzen zaio patxada apur bat hartzea. Uste dut ni izango naizela gutxien hitz egiten duen botileroetako bat, Iñakiri ere hala gustatzen zaiolako» ”



gute: ‘A ze putada mikroa eraman beharra, baina ze gustura entzuten ditugun esaten dituzuenak’», gaineratu du, mikroak suposatzen duen ardura ere nabarmenduz: «Ez dakit eredu eman behar dugun haur eta gaztetxoaren aurrean, baina nik sentitzen dut nola-baiteko ardura bat, mikro bat daukazun momentutik, ongi hitz egitekoa edo saiatzekoa behintzat. Horrela hartu beharko dugu, bestela gehiegi agobiatuko ginateke».

Eta bertsolariek aipatu ohi duten moduan, plazan esan ezin direnak komentatzeko aukera bikaina izaten dira autoz egiten dituzten joan-etorri luzeak. «Ez orain bakarrik. Binakako Txapelketan ere bai. Eta udan festetako partidaren bat ez dakit nongo herri txikitan badauka eta libre banago, gustatzen zait berekin joatea. Baina Iñaki lagun mina dudalako, beste lagun batzuekin eguna gustura pasatzen dudana bezala. Eta agian hori adinak ere emango du, baina egia esan, Iñakik irabazi edo galdu, etxera bueltak oso antzekoak izaten dira. Beti otordua egiten dugu. Ez daukat buruan parti-

darik jokatu eta gero afaltzera gonbidatu ez gaituenik, beti berak ordaintzen duelako. Baina pilotari eta botilero bezala baino lagun moduan, inguruan beste bi edo hiru lagun ere izaten ditugulako».

BI FINALISTA SEI KILOMETROAN

Mapan begiratuta, Alegia eta Amezketako arteko errepideak 6,5 kilometro dituela ageri da. Buruz Buruko bi finalistak, beraz, zazpi kilometroren barruan jaioak dira, gutxi gorabehera. Baina finaleko protagonisten gertutasuna erakusten duen beste datu batzuk ere eman dizkigu Iker Iriartek: «Jokin laguna dugu, Gorka zer esanik ez; laguna izateaz gain, bizilagunak ere

izan gara urte askoan. Bertso eskolan nire ikaslea izan zen Gorka, Iñaki ere bai. Herri txikietan gertatzen diren gauzak. Aldi berean, gure aita Amezketakoa zen, nik Amezketako pilota eskolan jokatu nuen... Gauza asko elkartzen dira finala berezia egiten dutenak».

Gorkaren kasuan, adibidez, alegiarra izanda, amezketarrak irabaztea nahiko du, eta izango dira alderantzizko kasuak ere. Baina Binakako finalaren atarian Alegian izan zen giroak zer pentsatua eman omen zion: «Iñaki Binakakoaren finalera sailkatu zenean kalean jendearengan ikusten zenuen gogo hori sekulakoa izan zen, eta bai pentsatu nuen nirekiko Amezketan ez ote garen ilusio hori apur bat galtzen ari. Ez ote garen ohitu Jokin finaletan ikustera, ni neu lehena. Eta Alegiakoa ikusteak balio izan zidan horretaz jabetzeko, Jokin iristen denean ere merezi duen balio eta ilusioz hartzeko».

Gainera, gogoratu behar da duela lau urte Artolak finalerako txartela eskuratu zuenean, Altunaren aurka jokatu ezinik geratu zela, lesio baten erruz.

«Hori bada barruan geratu zitzaigun arantza bat. Larrazabalen aurkako finalerdia jokatzetik bueltan, gogoratzen genuen Iñakik min hartu zuen urte hartan, astelehenean nik lagundu niola Gasteizera proba medikuak egitera. Eta kasualitatea da aurten finalerdia Ogetan izatea, eta handik bueltan horixe aipatu genuen: ‘makina bat buelta egin dizkiagu Gasteizera, medikutara eta abar, eta lau urte geroago, berriz ere finalean, berriz ere Bilbon, berriz ere Jokinen aurka’. Ez dakit justizia poetikoa den, edo Iñakik berak esan zuen moduan, nork jakin, duela lau urte final hura jokatu izan balu agian orain ez zen hemen egongo. Hori ezin da jakin, baina badago jendearen artean lehen jokatu ez zen final hori bizitzeko gogo».

«Hor atzean dagoena da urte askoan jende askok egin duen lana bere herriko pilota eskolan», gehitu du Iriartek Tolosaldeko pilotarien arrakastaz, baina etorkizunera begira zalantzak ditu. «Egunero pilota eskoletan gabiltzanok badakigu errealitatea zein den», ohartarazi du.

«Intimitate falta horrek eraman gaitu botilerook gero eta politikoki zuzenagoak izatera», dio Iriartek mikroi buruz, nahiz eta onartu ikus-entzule moduan eskertzekoa dela

Gorka Alegiako pilota eskolan lanean dabil, eta Iker Zaldibiakoan. Pilota profesionalean Gipuzkoak loraldia bizi duen arren, oinarrian dauden arazoak ez ahazteko eskatu dute



Jokin eta Gorka Altuna, Bilboko frontoian egindako material aukeraketa batean. Marisol RAMIREZ | FOKU

MATEMATIKA SAIOAK AUTOAN, WHATSAPP TALDEKO IRAKURKETAK ETA ESTUASUNEI AURRE EGITEAREN BALIOA

Buruz Buruko seigarren finala du biharkoa Jokin Altunak, eta hamabosgarrena Lehen Mailako hiru txapelketa nagusiak kontuan hartuta –Bigarren Mailako bat ere jokatu zuen Lau eta Erdian; hain zuzen ere, Iñaki Artolaren kontra 22-8 galdu zuena–. Pentsa liteke amezketarra jada ohituta dagoela finalak jokatzera, eta bere botileroak ez dio kontrakorik.

«Lehenengoz ezin dut askorik esan, ez nintzelako horrenbeste egoten berarekin. Baina azkenekoetan denbora dezente pasa izan dugu elkarrekin finalen aurretik ere, bezperan batera afaldu izan dugu, adibidez, eta nik beti oso lasai ikusi izan dut. Partida bat gehiago balitz bezala. Egia da berak esan ohi duela

gauean hasten direla urduritasunak, behin ohera sartutakoan eta burua lanean hasten denean. Orduan hasten dela datorren egunean zer datorren pentsatzen. Tentsio handiko uneak dira, noski, eta nik uste berak ere sentitzen duela hori. Pentsatzen dut aurrenekoetan urduriago jarriko zela. Ezin da ohituratzat hartu, baina egia da final asko jokatu dituela eta esperientzia horrek asko lagunduko diola bi aste horiek nola eraman jakiteko», dio Gorkak.

Izan ere, eta pentsa litekeenaren kontra, Jokinek asko hitz egiten omen du pilotaz ingurukoekin lasai dagoenean ere. «Orokorrean gustatzen zaio pilotaz hitz egitea. Askotan igandetean jokatzeko tokatzen

zaio, adibidez, eta larunbatetan aurreneko eta bigarren partida ia guztiak ikusten ditu. Horretan ez da deskonektatzekoa. Pilota asko gustatzen zaio eta asko hitz egiten dugu pilotaz. Iñakiren partida asko ere batera ikusi ditugu. Ez dugu azterketa sakonik egiten, baina beti aipatzen dugu zerbait: ‘Hau egin behar zian’ eta antzekoak. Nik oso eroso ikusten dut esparru horretan. Natural eramaten du, eta pilotaz hitz egin behar bada hitz egiten du».

Adibide bezala, ligaxkan Iker Larrazabalen aurka galdu zuen partida aipatzen du Gorkak. Jendeak kirolaria burumakur edo haserre irudika lezake etxerako bueltan, hitz egiteko gogorik gabe, baina ez omen zen hala izan.

«Partida hori galduta, jada finalera sailkatzea ez zegoen bere esku bakarrik, eta bidaia guztia kalkuluak egiten pasa genuela gogoratzen naiz. ‘Hik Zabala 15ean uzten baduk, besteak ez dakit zenbat egin behar...’ eta antzekoak. Askok pentsatuko dute galdutakoan pilotariak ez duela nahiko horretaz hitz egin, baina bai, hura kurioa izan zen».

Jokinek berak askotan aipatzen du txapela irabaztea edo ez irabaztea detaile txikietan egoten dela, eta baita finalean egotea edo ez egotea ere. Gorkak gogoratzen duenez, aurtengo txapelketan ere izan da horrelako egoera harrigarri bat. «Ligaxka hauetan aurreneko partida galtzen baduzu, sailkapena jada ez daukazu erabat zure eskuetan, nahiz eta beste biak irabazi. Alde horretatik, oso garrantzitsua zen Larrazabalek Dariori irabaztea, horrek bere esku uzten zuelako sailkatzeko aukera. Gogoratzen naiz 14-20 galtzen joan zela Larrazabal eta gure Whatsapp taldean nola komentatu genuen gauzak jada oso zailak jartzen ari zirela. Baina Larrazabalek buelta eman zion partidari eta hori guretzat neurketa bat irabaztea bezalakoa izan zen. Aukera zure eskuetan daukazulako berriz eta horrek beste lasaitasun bat ematen duelako».

Eta ligaxkako bigarren partidari, Javi Zabalaen aurkako neurketan, lehen zati zail eta gogorrari eutsi eta egoera iraultzeko gai izateari ere garrantzi handia eman diote Altunatarrek, porrot batetik etorrira gainera. «15. tantora arte sekulako erakustaldia eman zuen Zabalak. Nik ez nuen Jokin batere gaizki ikusten, baina Javi gaineratik pasatzen ari zitzaion. Baina lortu zuen partida horri buelta ematea, eta hori ere asko komentatu dugu: zer meritu izan zuen egoera horretan sufritzen jakin eta horri buelta emateak. Askotan pentsatzen da 22-4 irabazteak indar handiagoa ematen duela, baina zure burua estu eta larri ikusi ondoren partida bati buelta emate horrek ere indar handia ematen du».

FINAL GARRANTZITSUENA, FINALERDIAREN AURRETIK; ETA EGUNGO BOLADA ARRAKASTATSUAN, MIKEL ANAIEK EGINDAKO LANARI AITORTZA

Azken aste hauek oso bereziak izan dira Iñaki Artolarentzat, eta ez Buruz Buruko finalera sailkatu delako bakarrik. Bere adierazpenetan onartu izan duenez, bere final garrantzitsuena maiatzaren 16an jokatu –eta irabazi– zuen, Nora, bere lehen alaba, jaio zen egunean.

«Iñakirentzat finalerdi bat jokatzeari berezia da berez, beste pilotari batzuk bezainbeste ez dituelako jokatu, eta bereziki Jokin bezainbeste. Baina Iñakiren kasuan, finalerdia ez, bere bizitzako finalik garrantzitsuenetako bat zeukan egun horietan. Niri ostiral

eguerdian, ordu bata aldera, abisatu zidan: ‘Hi, Nora 12.00 aldera jaio duk eta poz-pozik gaudek, oso erditze azkarra izan duk’. Eta une horretan, niretzat ere lasaitasun bat izan zen, igandean frontoira joan behintzat egingo ginelako. Biok elkarrekin joan ginen eta oso asebeteta aurkitu nuen. Ohiko bidaia izan zen, gure kontu pertsonalei buruz hizketan eta abar. Baina oraindik ere tarteka negarra irteten zait, oso egun sentiberak izan direlako guretzat, gauza asko mugitu zaizkigulako barruan», dio Iker Iriartek egun haietan bizitakoaz.

Zorioneko egunak, asteak... edo hilabete pareak, justu denbora horixe igaroko baita Binakako finalaren –Artolak Lehen Mailan jokaturako aurreneko finala– eta Buruz Burukoaren artean. «Urtero gertatu dadila», opa du Iriartek, lanak pilatzen ari ote zaizkion galdetuta. «Gustuko lanak dira sarrerak antolatzea, edo autobusa, edo afaria. Festa bat antolatzea beti da gustuko lana. Baina egia da Binakako Txapelketara sailkatu zenean kuadrillan ere aipatzen zela, ‘hi, bai ala bai joan behar diagu, agian beste

aukerarik ez diagu izango-eta’. Zeinek esan orduan bi hilabete eskasean berriz ere final batean izango zenik Iñaki. Ni gaur egun ez naiz Alegian bizi, baina askotan etortzen naiz eta esango nuke herrian giroa lasaixeago sumatzen dudala oraingoan. Binakakoak izan zuen Lehen Mailako aurreneko final handia izatearen garrantzi hori, eta jendea urduriago sumatzen zen, eta orain uste dut patxada gehixeagorekin dagoela».

Eta zer dago, ba, bolada arrakastatsu horren atzean? Zaila da elementu bakarra aipatzea. «Eliteko kirolari hauen kasuan emaitza onak lortzeko lana beharrezkoa da, lan asko. Batez ere berarena, urte askoan egin duena. Eta ingurukoena ere bai. Hasi pilota-eskolako entrenatzaileetatik, gaur egungo entrenatzaile, masaje-emaile, fisio eta abarretaraino. Horrez gain, berezko dohainak behar dira, zorte puntu bat ere bai. Urte batzuetan Iñakik Buruz Buruko prestatzeko denbora asko izan du, eta, aldiz, aurtengoa izango zen entrenamendu gutxien egin duen urtea, Binakako finalera iritsi zelako. Ez dugu esango inoizko emaitzarik onena lortu duenik, duela lau urte ere finalera sailkatu zelako, nahiz eta gero jokatzeko aukerarik ez izan».

Ingurukoak aipatuta, bi izen nabarmendu ditu Ikerrek. «Niri, partida bukatutakoan, bi izen etorri zitzaizkidan burura, bi Mikel. Bat, gure anaia, Mikel Iriarte. Duela 30 urte pilota eskola berak jarri zuelako martxan Alegian eta gutako asko pilotariak edo pilotazaleak izan bagara hasiera haiengatik delako. Eta bestea Mikel Artola, Iñakiren anaia. 2021ean bera zen Iñakiren botileroa. Oraingoan kasualitatez ni tokatu naiz, baina uste dut Iñakirekin lan gehien egin duena eta gure artean pilotaz gehien dakiena Mikel Artola bera izango dela».



Iker Iriarte, Iñaki Artolarekin hizketan, Peio Etxeberriaren kontra Eibarren jokaturako neurketan. Endika PORTILLO | FOKU

LUR AZPIKO ABENTURAK



iRRITZIA:



Amaia
BALLESTEROS



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka IZAGIRRE BROSA

Polizia-indarkeria telesailen begiradapean

Telesail askok, batez ere polizia-generoetan eta thrillerretan, krimenari aurre egiteko «beharrezkoa dena» egiteko prest dauden heroi gisa erakusten dituzte poliziak, baita horrek arauak haustea bada- kar ere. Beste serie batzuek, ordea, jarrera kritikoagoa dute eta, zenbait polizia kasuren basakeria erakustez gain, Es- tatuaren errepresio-aparatuek ere salatzen dituzte.

USTEZKO HEROIAK

Batez ere estatubatuarrak di- ren pelikulak ikusten hazi ga- ra, non “onek” —jardunean edo erretiratuta dauden poli- ziak, CIAko agenteak edo agente ohiak, militar ohiak, eta antzekoak—, istorioaren une jakin batetik aurrera, “ezinbestean”, legea urratu behar izaten duten “gaiztoak” harrapatzeko.

Uhunka aldiz ikusi ditugu fikziozko eszenak, non poli- ziak edo ikertzaileak epailea- ren agindurik gabe etxe parti- kularretan sartzen diren, telefonoak legez kanpo zelata-

tzen dituzten edo atxilotuei tratu txarrak —eta batzuetan tortura— ematen dizkieten.

Fikziozko ustezko “heroi” horiek beti jokatu izan dute arauen kontra, eta urte luzez modu sotil, baina etengabea- jaso dugun mezu horrek, agian, batzuen kontzientzia- n eragin du: indarkeria eta poli- ziaren bortizkeria normaliza- tzea ekarri du.

GIZARTEAREN ISPILU

Historikoki, zinema gizartea- ren ispilu izan da, eta garai ba- koitzeko gatazkak, nahiak, bel-

durak zein eraldaketak islatu ditu. Azken urteotan, polizia- basakeria jorratzen duten hainbat telesail sortu dira; fe- nomeno hori ez da hutsetik agertu, gai hori eztabaida pu- blikoaren erdigunean kokatu duten faktore sozial, politiko eta kulturalen konbinazio ba- ten ondorio da.

Gaia, zoritxarrez, Euskal He- rrian ongi ezagutzen dugun arren, nazioarteko gorakada horren arrazoi nagusietako bat da gizartean, oro har —berezi- ki AEBetan—, poliziaren gehie- gikerien inguruko kontzien-

tzia handiagoa dagoela. Geor- ge Floyd afro-amerikarraren hilketak eta Black Lives Matter bezalako mugimenduek, esa- terako, nazioartean oihartzun handia izan dute.

Beste faktore garrantzitsu bat ikusleen kontsumo-ohitu- ren aldaketa da. Streaming pla- taformen gorakadarekin, diru- dienez, istorioak kontatzeko sormen-askatasun handiagoa dago, eta telebista kate tradi- zionalek saihesten zituzten gai konplexu eta polemikoak ara- katzen hasi dira. Justizia sozia- la askorentzat lehentasun bihurtu den testuinguru hone- tan, indarkeria instituzionala ikusarazten duen edukia sor- tzea ez da soilik ekintza politi- koa: merkatu-estrategia ere bada plataformentzat, harpi- detza eta ikustaldi gehiago lor- tzeko bide.

Poliziaren basakeriari buruz- ko telesailen gorakada ez da moda iragankor bat, baizik eta gero eta kritikoagoa, informa- tuagoa, eta justiziarekin nahiz haren gatazken irudikapen zin- tzoarekin konprometituago da- goen gizarte baten isla. Jarraian, adibide interesgarri batzuk:

When They See us

NETFLIX

Altsasuko gazteek bizi zuten bidegabekeria gogorarazten duen telesail aparta da. Bene- tako kasu batean oinarrituta- ko ekoizpen honek AEBetan Central Park Five izenez ezagu- tzen diren gazteek pairatuta- koaren erretratu latza eskain- tzen digu: bost gazte errugabe espetxeratu zituzten. Kasu horretan, gainera, poliziaren basakeria, transfobia, AEBeta-





ko botere judizialaren akatsak, arrazakeria eta justizia sozialaren inguruko gaiak jartzen dira mahai gainean. Kontakizun gordina eta paregabea da. Lau zatitan egituratuta dago: galdeketen gaua, epaiketa, erreformatorioko egunak eta azken gaztearen kasua —larriena eta bidegabeena— aztertzen dira.

Oussekin

DISNEY+

Kasu honetan, Iñigo Cabacasen izena datorrit burura. 2012ko apirilaren 9an hil zuten Iñigo Cabacas gaztea, Ertzaintzaren gomazko pilota batek buruan jo eta lau egunez koman egon ondoren. 1986ko abenduaren 5etik 6rako gauean, Parisen, ikasleen protesta-mugimendu baten erdian, poliziak emandako jipoiaren ondorioz hil zen 22 urteko Malik Oussekin.

Honako hau bere familiaren borrokari buruzko lau ataleko miniseriea da. Malik Oussekineren izena estatu frantsesean

oraindik ezaguna da, indarkeria polizialaren aurkako borrokaren ikur bihurtu delako. Historian zehar hainbeste biktima utzi dituen polizia basakeriaren eta xenofobiaren arteko harreman lazgarri eta zoritxarrez hedatua erakusten duen telesaila da.

Bereziki Oussekinen familian zentratzen bada ere, kontakizunak politikaren eta poliziaren ikuspegitik ere erakusten du kasua, eta bereziki azpimarratzen ditu erantzukizunak saihesteko eta hilketa justifikatzeko edozein aitzakia bilatzeko egin zituzten ahalegin gutxiesgarriak. Agerian geratzen dira Estatu frantsesak egia ez kutatzeko erabili zituen trikimailuak. Hunkigarria eta gogorra da, baina klixex eta diskurtso moralizatzaileetatik aldentzen da.

Seven Seconds

NETFLIX

Veena Sud gidoilariak, “The Killing” telesailaren arduradu-



nak, antzeko estiloa mantentzen duen beste telesail bat egin zuen 2018an, tamalez oharkabea pasa zena: “Seven Seconds” telesailean genero kriminalaz baliatu zen AEBe-tan une hartan hain ohikoa ez zen arrazakeria eta poliziaren basakeriaz hitz egiteko. Nera-be afro-amerikar bat kotxez harrapatzen duten unean abiatzen da istorioa; gidatzen duen poliziak eta bere kideek hiltzen uztea eta gertatu dena estaltzea erabakitzen dute.

Altsasu

FILMIN-PRIMERAN

Egiari zor, telesaila ez da benetan gertatu zena bezain gordina, eta une batzuetan erdibidean geratzen da, baina polizia zein guardia zibil (eta

estatu) indarkeriak aipatzen hasi eta gazte hauen kasua ez nabarmentzea bidegabea izango zatekeen. Aurten “Faisaién Irla” filma estreinatu duen Asier Urbieta da telesailaren zuzendaria, eta gidoilariak, Harkaitz Cano, Mikel Alvarez eta Andoni De Carlos.

Dokumentazio ofizialean deskribatzen diren gertakariak eta une bakoitzeko kronikak dira kontakizunaren bizkarrezurra. Egoera eta giro arrotz batek ezustean harrapatutako pertsonaien bizi-birak kontatu eta fikziora moldatu zituzten. Telesaila sortzeko dokumentazio lan handia gauzatu zuten; kasuan inplikaturako hainbat pertsona elkarrizketatu zituzten eta epaiketaren transkripzioa erabili zuten. Auzipetutako gazteekin zein haien senideekin ere hitz egin zuten. Guardia zibilekin ere hitz egin nahi izan zuten, baina ezezkoa eman zieten.

The Wire

MAX

David Simon Baltimoreko poliziaren errealtatea ondoen islatu duen sortzailea dela esan daiteke; iragazkirik gabe, indarkeria egunerokotasunean erabiltzen duten tresnetako bat de-



la erakusten du. Baltimore hiriaren erretratu sakona eskaintzeaz gain, bost denboraldiako bakoitzak hiriko alderdi sozial eta instituzional desberdin bati erreparatzen dio: droga trafikoa eta polizia lana, langile klasearen errealitate gordina eta ustelkeria sistemikoa (polizia, politika, hezkuntza, komunikabideak...) dira nagusiki jorratzen diren gaiak.

Fikziozko lan honek polizia-indarkeria eta instituzioen porrota modu errealista eta kritikoa erakusten ditu. Ez zen bereziki arrakastatsua izan bere garaian, baina urteekin kultuzko telesaila bihurtu da eta telebistaren historian inoiz egin den onenetarikoa.

Suspect: The Shooting of Jean Charles de Menezes

DISNEY+

Estreinaldi handien zerrendetatik bazterrean, isilpean iritsi da “Suspect: The Shooting of Jean Charles de Menezes” telesail laburra, zaratarik atera gabe, ia oharkabea. Jorratzen duen gaiak, akaso, baten baino gehiagoren haserrea eragin du. 2005eko Londresko erasoen testuinguruan, Jean Charles de Menezes brasildararren istorio tragikoa ardatz duen telesaila da. Terrorista islamista bat zelakoan, poliziak tiroka hil zuen Londresko metroan; errugabea zen.

Aurki 20 urte beteko dira (uztailaren 7an) Londresko garraio-bide sistemaren aurka burututako eraso terroristak izan zirenetik. Urte hartan, egun batzuk geroago, uztailaren 21ean, beste eraso bat gauzatu zen; detonagailuak lehertu ziren, baina bonbak ez. Ez zen hildakorik egon eta zapuztutako atentatuko

ekintzaileak atxilotuak izan ziren. Atxiloketa operazio horretan, baina, akats tragiko batekin beste izen bat gehitu zuen memoriaren zerrenda ilunera: Jean Charles de Menezes brasildarra. Erasotzaileetako batekin nahastu zuten, eta bere etxetik Stockwelleko metro geltokiraino jarraitu ostean, poliziak, zenbait akats larri egin ondoren, metroko bagoian bertan hil zuen, tiroka, bortizki.

Telesaileko lau atalek gertakariaren une garrantzitsuenak azaleratzen dituzte: atentatuaren prestaketa, susmagarrien bilaketa –poliziaren “akats” larriak tarteko–, familia brasildararren eta giza eskubideen aldeko ekintzaile taldeen haserrea eta aldarriak, filtrazioak, batzorde independenteen lana eta, azkenik, epaimahai bidez egin zen epaiketa. Argi eta garbi, izen-abizenak erabiliz, errudunak seinalatzen ditu, eta poliziaren arduragabetasunak eta gezurrak irmoki salatzen.

Antidisturbios

DISNEY+

«Estatu espainoleko Poliziaren Sindikatu Bateratuaren haserrea eragin zuen telesaila»; leiroburu hori izan liteke telesail



honen aurkezpen gutunik onena. Estatu espainoleko polizia berezien unitate batean (*anti-disturbios* edo istiluen aurkako polizia deritzona) eta haien inguruan sortzen den ikerketa batean oinarritzen da. Ez da istiluen kontrako polizien irudia zuritzeko sortu den telesail bat; guztiz kontrakoa.

Akzioa eta thriller poliziakoa modu eraginkorrean uztartzen dituen proposamena da, eta pertsonaien garapena erdigunean jartzen duen lehen mailako ikuskizuna. Tratamendu bisuala indartsua eta erakargarria da, eta sei ataletan zehar istorioa estilo sendoz eta koherentziaz garatzen da. Rodrigo Sorigoyen zinemagileak “El Reino” film arrakastatsuan landutako estetika eta narratiba indartsuak berriz ere txertatu ditu lan honetan.

Tramaren erdigunean Madrilgo sei polizia daude; etxegabete operazio batean parte hartzen ari direla, etorkin bat


hiltzen da, eta horrek eragiten du Barne Segurtasuneko iker-tzaile Laia Urquijo (Vicky Luengo) kasua aztertzen hastea. Gertakari isolatu eta bakarra zirudiena, apurka, konplexutasun handiagoko sare bihurtzen da, eta poliziaren barruko ustelkeria, presio politikoak eta sistema judizialaren mugak agerian geratzen dira.

We Own This City

MAX

David Simon-en beste telesail batekin amaituko dugu gaurko ibilbidea. Hau ere Baltimoren girotuta dago, eta bertako poliziaren armak arakatzeko indar bereziaren gainbeheraren erretratua eskaintzen du. Justin Fenton kazetariaren liburuan oinarrituta, telesailak konfiskatutako drogen birsalmenta, estortsioa, bortizkeria eta beste hainbat delitu jasotzen ditu.

Istorio hau, bereziki, Wayne Jenkinsen pertsonaiaren bidez kontatzen da —Jon Bernthalek maisuki antzeztua—; unitatearen buru zenaren bizitza iragan eta orainaren artean jauzika azaltzen da (hasieran apur bat nahasgarria izan arren). Begirada ilun eta zorrotza darabil, ustelkeriaz josita dagoen sistema baten salaketa eginez, non zintzotasuna salbuespena baino ez den.





Joanes LAMEIRINHAS ORTUOSTE

Psikogerontologoa eta EHUko Psikologia Fakultateko irakaslea



GUNETUZ
PSIKOLOGO EUSKALDUNEN SAREA
www.gunetuz.ueu.eus

Suizidioa adineko pertsonetan: gutxietsitako errealitatea

C OVID-19aren pandemiaren geroztik, osasun mentalaren auzia eztabaida publikoaren eta politikoaren ardatz nagusietako bat bihurtu da. Horrekin batera, luzaroan isilarazia izan den beste errealitate bat ere mahai gainean jarri da: suizidioa. Azkeneko datuen arabera, 2023an 4.116 suizidio erregistratu ziren estatu osoan; horietatik 141 Euskal Autonomia Erkidegoan, eta 65 Nafarroako Foru Erkidegoan. Azken urteotan, gazteengan jarri da arreta; izan ere, suizidioa lehenengo heriotza-kausa bilakatu da 15 eta 29 urte arteko gazteen artean, trafiko-istripuen eta minbizien gainetik. Haatik, suizidio-tasarik altuenak dituen adin-taldea adineko pertsonena da; batez ere, 80 urtetik gorako pertsonena. Kontrara, adin-talde horretan gertatzen diren suizidioak sarri isilean eramaten dira eta ez dute arreta sozial edo mediatiko gehiegi jasotzen, halako moduan, non arriskua baitago errealitate hori ikusezin bihurtzeko.

Suizidioaren atarian sufrimendu handia egoten da, eta sufrimenduaren arrazoiak askotarikoak izan daitezkeenez, suizidio burutuaren arrisku-faktoreak ere askotarikoak dira. Adinekoen kasuan, honako faktoreekin lotu izan da batez ere: gaixotasun mediko larriak pairatzea, independentzia funtzionala galtzea, norbera karga bat dela sentitzea, depresioa izatea, hurbileko pertsonak hiltzea, bakarrik sentitzea eta babes sozial urria izatea. Hala eta guztiz ere, suizidio burutuaren arrisku-faktore nagusia suizidio-ideazioa da; hau da, nork bere burua hiltzeari buruzko pentsamenduak izatea. Horrelako pentsamenduak izateak ez du ezinbestean

esan nahi pertsona batek bere buruaz beste egingo duenik, baina bai sufrimendu psikologiko nabarmena duela, arreta profesionala eskatzen duena.

Euskal Herriko Unibertsitateko QUALIKER ikerketa-taldeko kideok berriki egindako ikerketa batean, zeinean Hego Euskal Herriko 378 adinekoek parte hartu zuten, % 13k adierazi zuen ez zuela bizitzen jarraitu nahi, eta %3k bere buruaz beste egiteko pentsamenduak zituela.

Aipatutako datuak kezkarriak dira, eta agerian jartzen dute suizidio-ideazioa errealitate ukalezina dela adineko pertsonetan ere. Funtsezkoa da ideia horiek dituzten adinekoak modu goiztiarrean detektatzea eta beharrezko laguntza eskaintzea. Zoritxarrez, detekzio hori maiz zahartzaroari buruzko aurreiritziek eta estereotipoek eragozten dute, baita osasungintzan ere. Adibidez, oso hedatuta dago adineko pertsonetan tristura eta, are, hiltzeko gogoa “normalak” edota “ulergarriak” izan daitezkeelako sinesmena; batez ere, oso helduak direnean. Baina horrelako egoerak eta pentsamenduak ez dira zahartze-prozesuan berezkoak; kontrara, sufrimenduaren adierazle argiak dira. Hala, adinkeriak ondorio larriak ekarri ditzake; izan ere, adinekoen sufrimendu emozionala normalizat hartzeak arreta profesionala garaiz eskaintzeko probabilitatea txikitzen du.

Osasun publikoko arazo baten aurrean gaude, eta premiazkoa da suizidioaren bueltan dagoen isiltasuna haustea eta hari heltzeko estrategiak abian jartzea. Prebentzioa posible da, baita adinekoen artean ere. Horretarako, politika publi-

koak osasun mentaleko zerbitzuak indartzera bideratu beharko lirake; eta osasun-profesionalak trebatu beharko genituzke arriskuan dauden pertsonak garaiz identifikatzeko eta modu egokian artatzeko. Eta hori lortze aldera, adinekoekiko aurreiritziak eta estereotipoak deseraikitze lanketak ere txertatu beharko lirake osasun-zientzien ikasketa-planetan. Dena den, herritar bezala ere asko egin dezakegu; besteak beste, “ez dut ezertarako balio” eta “hilda hobeto nengoke” bezalako alarma-seinaleei erreparatzen eta erantzuten hasi gaitezke, eta besteei beren sufrimenduaren inguruan hitz egiteko aukera ematen (betiere, epairik egin gabe).

Norbaitek suizidio-pentsamenduak dituela sumatzen badugu, ezin dugu beste alde batera begiratu; laguntza jasotzen duela ziurtatu behar dugu. Guztioi dagokigu osasun-larrialdi honi aurre egitea. Zaintza komunitarioak bizitzak salba ditzake. Hori izan dadila gure iparrorratz. •



Adinekoak triste egotea normalizat jotzen da gehiegitan. GETTY IMAGES

{ koaderno } Iker BARANDIARAN

Aldaketaren margoak

Etxetik gertu Israel genozida salatu eta Palestina askatzeko murala margotu zuten BDZko kideek duela hilabete gutxi. Bada, asteburuan, gainera pintura horia botata erdi ezabatu dute. Hemendik hurbil, bidegorri batean ere aurkitu izan ditut Israel salatzen duten antzeko marrazkiak hondatuta.

Bestalde, pozten naiz, oro har gizartean sarraskia ekiditeko ezer gutxi, gutxiegi, egiten badugu ere, gizartea gero eta kontzientzia handiagoa hartzen ari delako larritasunaz eta bidegabekeriaz. Hori ez badago, ez dagoelako... ezer, eta bada lehen pauso garrantzitsua bat.

Izan ere, Israelgo Estatu sionista bere sorreratik tantaz tanta egiten aritu denaren jakitun gara, baina beste alde batera begiratu eta hala egiten utzi diogu luzaroan guk guztiok. Egiten uztea, horren kontra ezer ez egitea, gertaera bat, praktika bat, normalizatzea da. Eta egiten duenari egiten utzita inpunitatea oparitzen diogu, nahi duena egiteko potestate osoa. Gainera, sionistek ekonomikoki beti izan dituzte alde aliatu eta lobby neoliberal garrantzitsuak; eta orain, are eta gehiago, ultraeskuin eta eskuinaren babes osoa ere bai. Lehen kolpean paradoxikoa badirudi ere, esanguratsua da inposatzaileen ideologiak zer-nolako kamaleonikoak diren.

Palestinaren sufrikarioa ez da berria. Aspalditik dator, eta hamarkadatan tantaz tantaz dihardute sionistek palestinarrak erailtzen, haien bizitza proiektuak akabatzen eta lurrak lapurtzen gupidagabe, nazioarteko legedia guztiari bizkarra ematen. Eta ezagun da gure presiorik ezean hala jarraitzen dutela, are eta basatiago.

Tanta horien adibide oso grafikoa da ikusteko aukera izan dudana “No other land” dokumental palestinarra. Oscar-a irabazi arren, sionisten presiopean, zentsuratuta dago, bazter guztietan gizarteak horren berri izan ez dezan. Nik bi arrazoi nagusigatik ikusi nuen: Palestinarekin eta herri horren egoera ikusa-

razteko egiten den ahaleginarekin elkartasunean; eta kontatutako istorioaren jakin-minez. Bada, hain zentsuratua den ikus-entzunezkoan ez da apenas erailketarik erakusten eta, gezurra badirudi ere, odol gutxi isurtzen da, baina funtsean kontakizunaren oinarria sionistek hamarkadatan egiten dihardutena da: indarkeria, inpunitatea, bidegabekeria eta, herri baten duintasuna akabatuta, beraien lurraren lapurreta.

Haien oinarria hori da, herri bat suntsitu eta lurra lapurtzea. Helburua ez da aldatu. Aldiz, aldatu dena da bortizkeria eta erritmo abiada. Lehen zirimiria zena, orain uholdea da. Lehen hondeagailuek banan-banan eraitsitako etxeak, orain ehunka dira bonbardaketa baten bitartez. Lehen tirokatutako gaztea, orain etxerik gabe kanpin denda batean bizi den familia osoaren erailketa da. Erritmoak azkartuz doaz, basakeria biderkatzen. Eta hau ere –orain artekoa bezala– guztion begi bistan gertatzen badabil ere, ez dute gelditu nahi, kolore gorri bizikoa da.

«Israelgo Estatu sionista bere sorreratik tantaz tanta egiten aritu denaren jakitun gara, baina beste alde batera begiratu eta hala egiten utzi diogu luzaroan guk guztiok. Egiten uztea horren kontra ezer ez egitea da, praktika bat normalizatzea»

Gauza txikiek mugitu eta aldatzen dituzte arazo erraldoiak. Atzo bertan, fruta dendan datilak erostea otu zitzaidan. Dendariari azaldu nion ez nituela israeldarrak erosiko, eta –amaziga bera– harrotasunez erakutsi zidan marroi koloreko fruituak Palestinatik ekarritakoak zirela.

Eta inoiz ezertan “lohitzen” ez den lagun batek esan dit Palestinaren gaiarekin ez dagoela kolore grisik, beltza baizik. Argi dauka berak ere ezin dela Estatu sionistak egiten duena inola ere justifikatu eta gelditu beharra dagoela. •

NATURA HEZIGUNE

Hernaniko Urumea Ikastolako haurrak, horma zahar bati jakin-minez begira

HEZKUNTZA / Amagoia MUJICA TELLERIA

Hernaniko Urumea Ikastolako Lehen Hezkuntzako haurrek orain desberdin begiratzen diote “horma zaharra”-ri. Hala esaten diote Lizeaga kalean dagoen paretari, Gudarien plaza-tik hilerria doana, errepide bazterretik. Paretari begira, neurri-neurrira jositako proiektu pedagogiko oso bat landu dute eskolan.

«Iaz sartutako zuzendaritza taldea gara. Gure Zuzendaritza proiektuan jaso genuen kanpo espazioak eta naturaguneak erabiltzeko beharra, baita kulturartekotasunari eta horrek dakartzan erronkei erantzun bat emateko beharra ere. Hori izan zen proiektuaren iturburua. Diagnostiko txiki bat egin genuen ikasleekin, naturarekiko zuten ezagutza eta inguruko naturaguneez egiten zuten erabilera ikusteko», hasi du azalpena Oihana Etxabek, Urumea Ikastolako zuzendariak.

Diagnostikoa argigarria izan zen: ikasleek apenas ezagutzen zituzten inguruko landare eta animaliak. Natura itsutasuna. Baina, era berean, galdeketa horretan beste errealitate bat bistaratu zen: ikasleek naturaguneetara gerturatu nahi zuten, naturaren beharra sentitzen zuten.

Urumea Ikastolaren errealitate sozioekonomikoak eta linguistikoak tasun propioak dauzka. Lehen Hezkuntzan, 25 jatorri desberdineko familiatako haurrak daude. Haur asko bertan jaioak dira, baina gurasoek askotariko jatorriak dituzte. Eta, ondorioz, hizkuntza aniztasun handia dago.

«Natura espazioetan egiten diren ekintza osagarriek zein ir-

Hernaniko Urumea Ikastolan neurri-neurrira egindako proiektu bat jarri dute martxan aurtan. Gertu daukaten horma bat behaketarako eremu bihurtu dute. 6-12 urte bitarteko haurrak paretaren jiran ibili dira, bertako habitatakt identifikatzen ikasi dute eta euskarari arnasa eman diote. Ikasgelako paretetatik, horma zaharrera.

teerek gainkostu bat dute familientzat. Baina, era berean, ikasle eta irakasleek irteera hauek oso esperientzia positibo bezala baloratzen dituzte», azaldu du Etxabek. Hartara, Hernaniko Udalarari dirulaguntza bat eskatu zioten, ikasleak naturara eta euskarara gerturatzekeo baliabide gehiago izateko.

Beraz, horma zaharraren proiektuaren jatorrian bi klabe daude: natura-itsutasuna eta euskararen erabilera. «Aniztasunari inklusiotik erantzuteko beharra ikusten dugu. Eta inklusioa bada gertukoa ezagutzea. Gertukoaren ezagutzak, hurbiltasunak, bidea irekitzen dio euskarari ere», iritzi dio es-

kolako zuzendariak. Baina, nola uztartu natura eta euskara? «Gozamenetik. Hizkuntza bat ikasi behar duzunean, zuretzat bigarren edo hirugarren hizkuntza dena, atxikimendu bat behar duzu hizkuntza horrekin, plazera transmititu behar dizu, ondo pasatzeko bidea, praktikotasuna, ikasten duzuna baliatu dezakezula sentitzea... eta naturak hori guztia dauka. Ondo sentiarazten zaitu eta gozamina ematen dizu. Eta horrek ematen du abiapuntua, ikasleek proiektuarekiko gertutasuna sentitzekeo».

Eskolako patioarekin hasi ziren. Zementua eta hormigoia nagusi ziren tokian, naturari bidea nola ireki pentsatzen. Zementua “berdatzea” ez denez samurra, burua altxa eta

Urumea Ikastolako lehen mailako ikasleak horma zaharrean sendabelarrak identifikatzen eta biltzen.
Maialen ANDRES | FOKU



Ikasleak naturara eta euskarara gerturatzeko bideak eraikitzearekin tematuta, Urumea Ikastolan STEAM proiektu oso bat sortu dute aurtengo ikasturterako

Hormak normalean eremu urbanoetan kokatzen dira. Hiriguneetan zientzia lantzeko kanpo espazioak topatzea ez da hain samurra izaten. Hartara, hormak aukera ederra dira

eskolatik gertu dauden natura-guneetan jarri zuten begirada. «Jolasgaraiak zikloka antolatu genituen eskolatik gertu dauden jolas-parkeetara joateko. Eta horretan gabiltza. Herrira ateratzen hasi ginen, inguruko parkeetara. Ikasleak oso pozik daude. Ikasleen batzar bat egi-ten dugu hilean behin eta gehiago eta gehiago eskatzen dute. Azkenean, ordu asko ematen dituzte ikasgelan eta kanpora ateratzeak bizia ematen die. Eta herriari ere bizia ematen dio horrek. Joan-eto-rrian herritarrak agurtu, esko-la orduetan hutsa egongo li-tzatekeen parke bati bizia eman... aberatsa izan da», esan du Etxabek.


Hortik tiraka-tiraka, ikasleak naturara eta euskarara gerturatzeko bideak eraikitzearekin tematuta, Urumea Ikastolan STEAM proiektu oso bat sortu dute aurtengo ikasturterako. Lehen Hezkuntza osorako proposamen pedagogiko bat, 6-12 urte bitarteko ikasleak pareta zahar bati begira jarri dituen.

Maialen Diaz de Cerio Agenda 30eko koordinatzailea da, STEAM proiektuaren bultzatzailea. «Herri mailako proiektu komunitario bat sortzen ari ginen, zenbait naturaguneren aukeraketan oinarritzen dena, gero gune horiek babesteko eta ikasleek helburu pedagogikoekin erabiltzeko. Orduan,

eskolatik gertu genituen natura-guneak aukeratu behar genituen. Gure inguruan aberatse-nak pareta hori eta alboan dagoen zelai bat dira. Eta horregatik jarri ginen paretari begira».

Hormak normalean eremu urbanoetan kokatzen dira. Hiriguneetan zientzia lantzeko kanpo espazioak topatzea ez da hain samurra izaten. Hartara, hormak aukera ederra dira. Hiriguneetako pareta horiek, gainera, badute pisu historikoa. Hernaniren kasuan, herriko plazatik hilerrira doan bidea hormaz inguratuta zegoen eta oraindik hor dagoen horma zaharrak herriaren garapen historikoaren arrastoa gordetzen du. Eta horrez gain, bertako espezieak eta ekosistemak ezagutzeko eta lantzeko bidea ere ematen dute hormek. Eta sendabelarrak ere badira bertan.

«Horma batek eremu urbano batean zientzia didaktikoki lantzeko eta bertako espezieak ezagutzeko aukera ematen digu, eta horrek bide bat irekitzen du. Ikastetxe asko izango dira inguruan horma bat daukatenak eta ez dakitenak hori aprobetxagarria dela. Curriculumak berak esaten dizu bertako animaliak eta landareak ezagutzea bultzatu behar dela. Nola ezagutaraziko ditugu horiek? Pantaila baten



Goiko irudian, ezker-eskuin, Maialen Diaz de Cerio, Ane Aierbe eta Oihana Etxabe, Urumeako hezitzaileak. Lerro hauen azpian, Hernaniko argazki historiko bat. Maialen ANDRES | FOKU HERNANIKO UDALA

bidez? Paretan agian hogei espezie ditugu. Ba, goazen hogei espezie horiek behatzera eskola ondoan dagoen eremu bati begira», iritzi dio Iñaki Sanz-Azkuek, Hezkuntza Saileko Berritzegune Nagusiko aholkulariak.

PARETA ARTETIK, HORMA ZAHARRERA
Ikasgelako lau pareta artetik atera eta gertu dagoen horma zaharrari begira jarri dituzte Urumeako ikasleak. Balorazioa, ezin hobea. «Eskola Kon-

tseiluan aurkeztu genuenean proiektua, gurasoek galdetzen zuten, 'baina zein pareta? Hor zer ikasiko dute?'. Ez zen erraza azaltzea, baina ikusi duguna da ikasleek izugarri gozatu dutela eta izugarri ikasi dutela», esan du Oihana Etxabek.

STEAM proiektuak zientzia, teknologia, ingeniari-tza, artea eta matematika uztartzen ditu. Proiektu orokorra da, eskola guztirako pentsatua, baina ez da etapa guztietan modu berdinean lantzen. Hiru ziklo-





tan banatu da proiektua; Lehen Zikloa (LHko lehen eta bigarren mailak), Bigarren Zikloa (LHko 3 eta 4) eta Hirugarrena (LHko 5 eta 6).

Hirugarren zikloan ikerketa eta zientzia egin dute batez ere. Ikasturte hasieran EHuko irakasle Arantza Aldezabal gerturatu zen ikastolara, eta ikasleei erakutsi zien zientziak nola funtzionatzen duen. Sentsore berezi batzuekin hurreratu ziren paretara eta laginketak zientifikoki nola egiten diren erakutsi zien.

Bigarren zikloan herriko naturaguneak aztertu dituzte, babestu eta helburu pedagogikoekin erabiltzeko. Behatu, deskribatu, eta Udalari eskaera formala egin diote, gune horiek babesteko konpromisoa har dezan.

Urumea Ikastolaren horma zaharraren proiektua arrakastatsua izan da motor oso indartsua duelako: Maialen Diaz de Cerio, irakaslea eta Agenda 30eko arduraduna, eta Ane Aierbe, LHko lehen mailako tutorea. Biek hasieratik pasioz sinistu dute proiektuaren indarguneetan eta irudimenez eta indarrez eraman dute aurrera. «Proiektuan murgilduta geun-

den hirugarren zikloarekin eta kontziente ginen lehen zikloan ere beharra zegoela natura-itsutasuna lantzeko eta gertuko ekosistemak ezagutzeko. Eta hortik, Anek [Aierbe] eta biok pentsatu genuen ideia ona izan zitekeela sorginen inguruko ipuin bat sortzea. Sorginen gaineko este-reotipoak deseraikitzeke, Hernanik Akelarrearekin daukan harremana lantzeko, horman dauden sendabelarrekin lotzeko, sendabelarrak ezagutzen eta lantzen dituzten emakumeak lehen lerrora ekartzeke...», kontatu du Diaz de Ceriok. Esan eta egin. Hernanin kokatutako sorginen inguruko ipuin bat idatzi zuten; Diaz de Ceriok testuak eta Aierbek ilustrazioak.

Paretan sendabelarrak daude, eta lanketa sakona egin dute lehen mailako ikasleekin. Horman zortzi sendabelar identifikatu dituzte, eta Bingo formatuan jolas bat sortu dute

Maialen Diaz de Cerio eta Ane Aierbe irakasleak erabat inplikatu dira proiektuan, eta materiala beraiek sortu dute, batek testuak eta besteak ilustrazioak. Neurrira sortutako ikasmateriala

Haurrak sendabelarren inguruko karta-jolasean ikasgelan. Urumeako irakasleek espresuki sortutako materiala da. Maialen ANDRES | FOKU

Martxoaren 8aren testuinguruan, LHko 4, 5 eta 6 mailako neskatoek ikastolako txikien aurrean antzestu zuten ipuina.

Paretan sendabelarrak daude eta lanketa sakona egin dute lehen mailako ikasleekin. Horman zortzi sendabelar identifikatu dituzte eta Bingo formatuan jolas bat sortu dute haurrentzat bi irakasleek. Paretan identifikatu dituzten sendabelarren irudiak eta izenak –Hernaniko euskalkian jasoak– jaso dituzte fitxa batzuetan. Ikasleekin paretara gerturatu eta sendabelar horiek topatzean datza jokoak. Aurkitzen dituzten sendabelarren ondoan jartzen dute gometsa gorria, bingoan bezala, kartoia osatu arte. Behaketa bidez sendabelarrak topatzea da helburua.

Sei-zazpi urteko hamaika haurrekin gerturatu da GAUR8 paretara, eta ederra izan da jarduera. Haurrek paretari begiratzen ikasi dute, naturari begiratzen. Sendabelarrak identifikatu eta ozen esaten dituzte izenak, «Praitzibelar Burugorriya topatu dut!», egin du oihu mutikoak. «Hemen horma belarra!», neskatoak pozik. Jolasten ikastea eta natura eta euskara jolaserako zapatak balira bezala janztea... proiektu pedagogiko batek ezin du askoz gehiago eskatu.

Eta zer pentsatua ematen du egoerak. Afrikako herri urrun batetik etorritako herritarren sei urteko semeak eta Hernanin bertan duela lauorogitaka urte jaiotako herritarrak berdinean esaten baitiote horman ageri den *praitzibelar burugorriyari*. Eta tarteko belaunaldi askok, berdinean da jaiotakoak, ez dute ikusi ere egiten sendabelar hori, paretaren ondotik pasatzen direnean.

KARTA-JOLASA

Sendabelarrak identifikatu, jaso eta sailkatu. Hori egiten ederki ikasi dute Urumeako Lehen Zikloko ikasleek. Baina ez dira horrekin konformatu Maialen Diaz de Cerio eta Ane Aierbe. Zertarako balio dute sendabelarrek? Pauso bat gehiago emateko gogoia sortu zitzaizkien. Eta horrela sortu zituzten informazio fitxak, sendabelar bakoitza zertarako erabiltzen den ikasteko. «Justu irakurketan hasi berriak direnez, letrez gain ikonoak ere erabiltzen ditugu. Aurretik landuta genuen gaietako bat giza gorputza zenez, sendabelarren funtzioak giza gorputzeko parteekin lotu ditugu fitxa horietan. Sendabelar bakoitzak bere onurak ditu; urduritasunaren kontra, arnasako arazoak konpontzeko, azalekoak, odolekoak...», azaldu du Aierbek.

Hortik abiatuta, prozesua dinamikoagoa egiteko, karta-jolasa sortu dute. Aukera desberdinak eskaintzen ditu jolasak, tartean bikoteak osatzekoa. Sendabelar bakoitza funtzio batekin lotzea da gakoa. Asmatu egin dute irakasleek, ikasleek orduak eta orduak ematen baitituzte sendabelarren inguruko karta-jolasean.

«Oso modu naturalean barneratu dituzte haurrek sendabelarren izenak, Hernaniko euskalkian gainera. Gaia asko interesatzen zaie, lortu dugu harrapatzea eta gozatzen ari dira, euskaraz ari dira gozatzen. Emaizta mundiala izan da. Nire gelako umeak parkera joan eta bat-batean esatea ‘begira Ane pasmo belarra aurkitu dut’. Niretzat hunkigarria da hori. Begiratuko ez lioketen landare baten bila doaz, identifikatu egin nahi dute. Umeek berezkoa dute naturarekiko ja-kinduria eta horrek jokoa

«Nire gelako umeek beraien artean euskaraz egiten dute. Etxetik bakoitzak hizkuntza desberdina ekartzen du, horietan ezin dira komunikatu. Euskaraz komunikatzen dira»

«Naturan desagertu egiten da kulturartekotasuna; naturak denok berdindu egiten gaitu. Kultura guztiak elkartzen diren lekua da natura, eta hor, hizkuntza ez da muga»

ematen du», azaldu du Ane Aierbek.

Horma desberdina da bere luze-zabalean eta landare bakoitzak bere tokia dauka. Hormari begiratzen ere ikasi egin behar da eta hori zientziarekin ikasten da. Txoko bakoitzak bere ezaugarriak ditu; nolako zirrikituak, zer harri mota, horrek denak sortzen dituen habitat txiki horiek guztiak...

Hizkuntzaren erabileran ere mesedetan izan da. «Nire gelako umeek beraien artean euskara asko erabiltzen dute. Etxetik bakoitzak hizkuntza desberdina ekartzen du, ho-

rietan ezin dira komunikatu. Beraien artean komunikatzeko hizkuntza euskara da. Hori da partekatzen dutena».

Sendabelarrak identifikatzen ikasi eta beren funtzioak jolas baten bidez ikasi. Ez da gutxi, baina ez da horretan geratu kontua. Artelatzekoen laguntzarekin, ukendu tailerra ere egin zuten ikasgelan, sendabelar horiekin ukenduak nola egin ikasteko.

«Nire amak ukenduak egin izan ditu betidanik. Nire amarekin eta seme-alabekin goiz pasa bat egin genuen Hernanin, sendabelarrak jasotzeko. Gero, ama eta alaba etorri zi-



Goian, ikastolako pasilloa. Bistakoa da proiektuaren presentzia paretetan. Behean, ikasleak Ane Aierbe irakaslearekin karta jolasean.
Maialen ANDRES | FOKU

ren gelara eta ukenduak nola egiten dituzten azaldu zieten nire ikasleei. Transmisio hori eman zen eta ikusi zuten ukenduak egiten dituztenak ez direla ipuinetako sorginak, gure herriko emakumeak direla. Oso saio polita izan zen», kontatu du Ane Aierbek.

«Horman zientzia egin dugu eta landare-itsutasunari erantzun bat ematen saiatu gara. Neurrira egindako materiala sortu dugu eta euskara eta dialektoak nahastu ditugu horietan. Hernaniko euskalkia mantentzen saiatu gara sendabelarren izenetan adibidez. Martxoaren 8arekin uztartu dugu eta generoa ere landu dugu. Zientzia, natura-itsutasuna, euskalkiak, generoa, kultura... joko handia eman digu paretak», laburbildu du abentura Maialen Diaz de Ceriok. Eta sendabelarren fitxak erabiliz, robotika ere landu dute.

SUGARRA PIZTUTA MANTENTZEA

Zuzendaritzak balorazio oso ona egiten du. Oihana Etxaberen hitzetan, «jarraitu nahiko genuke, baina hemen behin-behinekotasunak zintzilik uzten gaitu batzuetan. Ez Ane eta ez Maialen ez dira behin beti-

ko irakasleak eskolan. Proiektuaren transmisioa klaustro guztiari egingo zaio eta bertan daudenek jarraipena emango diote. Baina motorrak gurekin egongo diren ziurtasunik ez daukagu eta garrantzitsuak dira motorrak. STEAM proiektuarekin jarraituko dugu, baina garrantzitsua da ikustea ea nork hartzen dituen ardurak eta konpromisoa, sugar hori bizirik mantendu dadin».

Urumea Ikastolan geratu edo ez, Maialen Diaz de Ceriok eta Ane Aierbek herentzian utziko dituzte eskolari neurri neurrira sortutako materiala eta egiteko modu bat. Sormenez eta konbentzimenduz aurrera ateratako ikas proposamen eder bat.

«Haurrek ordu asko ematen dituzte paretan artean. Kanpoko jarduerak garrantzi handia dute, eta xarma berezia. Hor, desagertu egiten da kulturartekotasuna. Naturan desagertu egiten da, denok berdindu egiten gaitu. Kultura guztiak elkartzen diren lekua da natura, eta hor, hizkuntza ez da muga. Kultura guztien topagunea da natura», egin dute balantzea eskolatik. Eta euskara, natura bezala, elkartzeko toki aparta da.



Urrun dagoena

Itzea URKIZU
ARSUAGA

Goizeko seietan iratzargailua-
rekin esnatu, lanera bedera-
tzietan sartzeko. Gosaltzeko
esertzera zindoazen momen-
tu zehatz eta konkretu berean, walkie-tik
«amaaaa!» entzun. Haurra ohetik hartu
eta titian jarri, zuk esku bakarrarekin go-
saltzen duzun bitartean. Lo hartu duela
probestuz, berriro ohera eraman, eta
poztu, denbora izango duzulako gosa-
riak, hamaiketakoak, arropak eta bazka-
ria prestatzeko. Logelatik itzuli eta, jan-
ten hastea pentsatu duzun une
horretantxe, walkie-aren deiadarra en-
tzun: «a-ma...txooo!».

Leioa poliki zabaldu, eta haurra be-
soetan goxatu, lastandu. Muxu eman,
kontu batzuk esan, elkarrekin ispiluari
begiratu eta haren irribarreaz kutsatu.
«Une hauek ez ditut sekula ahaztu nahi».
Zaharrena esnatzera abiatu, oraindik lo-
orduak falta zaizkiola jakinda.

Komuneko argia piztu, izpiren bat
gelara sartu dadin. Bizkarra lastandu,
gero besoa, gero masaila behatz-punte-
kin. Anaiak *body*-a bustita duela-eta,
bera aldatzera joango garela xuxurlatu:
«Gero poliki-poliki begitxoak zabaldu-
ko ditugu».

Txikia jantzi eta ura irakiten jarri,
bazkaltzeko zerbait azkarra prestatze-
ko. Erlojuak eta egoerak itota sentitu.
Beso batean haurra eta bestean haur-
eskolako koaderno: «Gaua ona, esna-
tu 06.35ean». Makarroiak tuperrera.
Mukiak harraskara. Zu berriro logelara,
zaharrena esnatzera.

Lasai eserita gosaltzeko astirik ez
duela izango jakinarazi, eta amorrazio-
oldeari eutsi. «Kontrola dezakedan ba-
karra nire jarrera da». Goizeko zortziak
eta bostean, arnasa sakon hartu. Bien
protestak sinfonia nola bilakatu diren
entzun. Eusten saiatu. Bi haurrak be-

sarkada bakarrean bildu. Galtzerdiekin
lagundu. Hortzak garbitzea biharko
utzi.

Zortziak eta hogeita bi minutuan, bi
haurrak autoan lotu; motorra piztu, iri-
tsi eta aparkatu. Haur-kotxea maletate-
gitik atera. Bat utzi, «oso ondo pasa,
maite zaitut»; bestea utzi, besarkada
handi batekin. Autora itzuli eta moto-
rra piztu. «Gaur ere lortu dun, aupa
hi». Garaiz, puntual, tik berde guztiak
hala-moduz beteta iritsi lanera; neka-
tuta, ezertan hasterako. Uf.

Goizeko bederatziak eta hiru minu-
tuan, errutina kapitalistaren estres
laino horretatik jaisten aritzeagatik
zortedun sentitu, badugulako etxe bat,
zutik dagoena. Badudalako bazkari bat,
berotu litekeena. Baditudalako bi haur
zoragarri, inork bizirik erre ez ditue-
nak, bonbaz edo armaz. Badugulako
genozidio bat, urrun dagoena. •

Inor ez dadila besarkada hori eman gabe geratu

4 O urteren ondoren elkartu dira
Adamary eta Edita, ama-ala-
bak. Jaio eta berehala, erdituta-
ko amarengandik bereizi, eta
adopzioan eman zuten txikia beste he-
rrialde batera. Amari beste azalpenik
eman gabe, eta haurra urteetara ente-
ratuz gurasotzat zituenak ez zirela bere
guraso biologikoak. Ez hori bakarrik,
modu ilegalean izan zen jasoa etxe
hartan.

Ez, ez da Espainian edo Euskal Herrian
gertatutako kasua, baina izan zitekeen.


Modus operandi berdina da. Hemen
haur lapurtuak bezala ezagutu ditugun
hamarnaka kasuetako bat izan daiteke
Txilen gertatutako hau. Han ere Pino-
cheten garaian gertatu ziren kasu gehie-
nak, baina ez denak. Estimatzeko da
20.000 haur izan zirela ilegalki adop-
zioan emanak Txilen; jaiotakoan edo or-
du batzuk geroago, haurra hil zela esan
eta kito. Sinplea bezain makabroa.

Egunotan milaka kasu horietatik lau
argitu dira, eta haurra (41 urtekoa gaur
egun) eta ama (64 urtekoa) aireportu ba-

tean elkartu dira, haien besarkada ikusi
ahal izan dugu.

Eta orain zer? Nola erreparatzen da min
hori? Arduradunak non daude? Zerbait
gertatuko ote zaie? Zeinek eta nola berre-
raikiko ditu bizitza horiek? Giza eskubi-
deen urraketa izugarriak dira kasu horiek
guztiak, eta ez hori bakarrik, inhumanoak
dira guztiz. Erditu berri den ama baten
momenturik zaurgarriena den horretan
txikia besoetatik eta bizitzatik desagerra-
raztea. Txilen bakarrik ez, hemen ere Ada-
mary eta Edita asko ditugu. •

Miren AZKARATE
BADIOLA



GAUR8 *ireki gure leihua*

{ euskal herria digitala }

Teknopolitika da teknologia digitalak estrategiko ki erabiltzea jarduera politikoan. Arlo horretan, teknologia ez da tresna huts bat, baizik eta antolaketa, parte-hartze, gatazka eta boterea eraldatzen dituen ekinbide bat. Ez da soilik lehendik dauden prozesuak digitalizatzea (adibidez, boto elektronikoa edo sare sozialetako kanpainak), baizik eta botere politiko eta sozialaren logikak zalantzan jarri eta berrasmatzean datza.

Teknopolitikaren bi joera nagusi be-reizten dira: bata zentralizatua (goitik beherakoa), non erakundeek teknologia erabiltzen duten kontrola indartzeko (zelatatzearen bidez edo e-administrazioaren bitartez, esaterako); eta bestea deszentralizatua (behetik gorakoa), non herritarrek, gizarte mugimenduek eta aktibista-sareek teknologia baliatzen duten ahalduztzeko, deliberatzeko, koordinatzeko eta egungo ordenari aurre egiteko.

Guiomar Rovira ikerlariak ikuspegi hori osatzen du bi teknopolitika mota bereiziz: bata askatzailea, norberaren burujabetzara eta ekintza kolektibora bideratua; eta bestea determinista, inter-eres korporatiboen edo gizarte-kontrolaren zerbitzura dagoena.

Aipatutako osagaiekin, beraz, bi ardatz irudikatu genitzake teknopolitika-ren nondik norakoak definitu nahiko bagenitu: zentralizatua - deszentralizatua eta askatzailea - determinista.

Teknopolitikaren ahalmen askatzai-lea edo menderatzailea nork, nola eta zertarako erabiltzen duenaren arabera-koa da. Enpresa teknologikoak merka-tuko lehen postuak hartu eta gure egu-nerokotasunaren erdigune bihurtu diren garaiotan, etorkizuna teknopoliti-karen parametroetan ere jokatzeko dela argi dago, beraz.

ESTRATEGIAK

Adibide asko, onak eta txarrak daude teknopolitikari buruz hitz egiteko: esta-tuko agentzien zaintza masiboa, sare sozialen erabilera hauteskundeak mani-pulatzeko edo polarizazio politikoa

areagotzeko, marketin politiko digitala, elite edo interes pribatuen mesedetan. Horiek ere teknopolitika dira, baina he-men teknopolitika askatzaileetan jarri-ko dugu arreta. Hauek estrategia posi-ble batzuk:

Helburu politikoa duten garapen tek-nologikoak. Pribatutasuna, gardentasu-na eta herritarren parte hartzea susta-tzen duten tresna digitalak sortzen dira; askotan software librean eta sistema deszentralizatueta oinarrituz. Tresna hauen helburua oinarritzko eskubideak bermatzea eta plataforma korporatibo handien mendekotasuna saihestea iza-ten da.

Ohitura instituzionalak aldatzeko pro-tokoloak. Administrazioen eguneroko jardunak eraldatzeko gida eta lan egite-ko moldeak proposatzen dira. Besteak beste, gardentasun proaktiboa, fiskali-zazioa eta praktika txarren salatzaileak babestea bezalako praktikak txertatzea dute xede. Helburua barrutik bertatik aldaketa kultural instituzionala bultza-tzea da.

Presio tresna gisa erabiltzen diren au-zi estrategikoak. Ekintza judizialak ba-liatzen dira aurrekariak sortzeko, hutsu-ne legalak agerian uzteko edo gehiegikeriak geldiarazteko. Kasu zeha-tzei aurre egiteaz gain, eztabaida publi-koak irekitzea eta arau esparrua alda-tzea dute helburu.

Legegintzako eragina eta araudi alda-ketak. Proposamen juridikoen bidez eta eragile instituzionalekin elkarlanean, eskubide digitalak babesteko lege alda-ketak sustatzen dira. Pribatutasuna,



Gorka JULIO EHdigitala ekimeneko kidea

Teknopolitika: askapenaren eta kontrolaren artean

adierazpen askatasuna eta informaziorako sarbidea bezalako arloetan dihardute bereziki.

ADIBIDEAK

Hauek estrategia batzuk soilik dira, baina ekintza teknopolitikoak izan diren beste asko ere badaude, he-men adibide esanguratsuetako batzuk:

Mexikoko zapatismoa. 1990eko hamarkadan, Inter-net baliatu zuen Mexikoko EZLN mugimenduak na-zioarteko elkartasun sarea sortzeko, ohiko komunika-bideak saihestuta eta bere mezua mundura zabaltzeko bide berriak bilatuz.

Hacktibismoa. Anonymous eta Electronic Distur-bance Theater bezalako kolektiboek ekintza digital sinbolikoak egin zituzten —hala nola webguneak blo-keatu—, boterearen gehiegikeriak salatzeke eta gizar-te-arazoak agerian jartzeko.

#YoSoy132, Occupy, Gezi Park, Txaleko Horiak, 15M eta mugimendu feminista globala. Mugimendu horiek guztiek tresna digitalak erabili dituzte deialdiak egite-ko, eztabaidatzeko eta mezuak zabaltzeko. Errealitate digitala eta presentziala uztartuta, parte-hartze kolek-tiboaren forma berriak sortu dituzte.

Indymedia mugimendua. 1999an sortu zen Inde-pendent Media Center (Indymedia), Seattleko Mundu-ko Merkataritza Erakundearen aurkako protesten tes-tuinguruan. Komunikabide independenteen sare globala izan zen, parte-hartze irekian oinarritua, eta informazioa ekoizteko eta zabaltzeko botere mediati-koari aurre egiteko tresna gisa erabili zen.

Grebaorokorra.info. 2012ko EHko greba orokorra-ren harira sortu zen euskarazko plataforma digital hau. Informazio librea hedatzeko, koordinatzeko eta mobilizaziorako tresna gisa funtzionatu zuen, sindi-katuen eta herritarren arteko lotura eta parte-har-tze digitala sustatuz.

Wikileaks eta Edward Snowden. Wikileaks plata-formak eta Edward Snowderek AEBetako gobernu-a-ren eta aliatuen jardura ezkutuen berri eman zu-

ten, dokumentuak filtratuta. Internet baliatu zuten espioitza masiboaren eta boterearen gehiegikerien berri emateko, gardentasuna eta kontrol demokrati-koa aldarrikatuz.

EFF, La Quadrature du Net eta Xnet. Sarearen askatasuna eta pribatutasuna defendatzen dituzte EFFk (Electronic Frontier Foundation), La Quadrature du Net-ek eta Xnet-ek. Herritarren eskubide digitalen alde jarduten dute, legedi murriztaileen aurka egi-nez eta tresna digitalen erabilera arduratsua susta-tuz.

CoopCycle eta Decidim, bi adibide hauek software garapen teknopolitikoaren bi adibide dira. Coopcycle banaketa-lanak kooperatiben bidez antolatzeko plata-forma da, eta lanaren eta datuen kontrola banatzai-leen esku uzten du, Glovo bezalako enpresen inposa-ketari aurre eginez. Decidim, berriz, parte-hartze politikorako software librea da, herritarrek erabaki-prozesuetan modu garden eta autonomoan parte har-dezaten aukera emanez.

TEKNOLOGIAREN ULERKERAREN GARRANTZI POLITIKOA

Yasnaya Elena Aguilar Gilek ohartarazten digu gaur egun teknologiaren ulermenak kapitalismoaren logi-kak bahituta duela. Haren esanetan, ez da teknolo-gia oro kapitalista izan beti, baina egun hala da: be-rrikuntza eta sormen teknologikoa kapitalismoak bereganatu ditu, eta natura, merkantzia bihurtuz, metaketaren zerbitzura jarri da, produktuak salgai bilakatzeko. Horren ondorioz, ezagutza metatuz sortutako tresna teknologiko horiek erabiltzeko or-daindu beharra dugu, software pribatiboarekin ger-tatzen den bezala.

Horren aurrean, *tequilogia* kontzeptua proposa-tzen du. *Tequio*-an oinarritzen dena, Mexikoko jato-rrizko komunitateetan ohikoa den lan kolektibo eta solidarioan —auzolanaren parekoa—. Ikuspegi horrek mendebaldeko ikusmoldea gainditzen du, hots, tek-nologia kontsumorako merkantzia gisa ulertzen duen jarrera, eta, horren ordez, komunitate-loturak eta au-tonomia indartzen dituzten teknologietan jartzen du arreta, ongizate komuna onura indibidualaren gaine-tik lehenetsiz.

Ikuspegi hori lotu daiteke Yuk Hui filosofoaren *kos-moteknia* kontzeptuarekin ere. Haren arabera, kultura bakoitzak bere teknologia propioak garatzen ditu bere kosmobisio eta balioetan oinarrituta. Hortaz, teknolo-giak ez dira unibertsalak ezta neutroak ere, baizik eta komunitateek eta haien inguruneek dituzten harre-man espezifikokoak islatzen dituzte.

Teknologiarekiko bi ikuspegi ezohiko horiek aditze-ra ematen digute teknologiaren beraren ulerkera ere teknopolitika egiteko garaian kontuan hartu beharko genukeela.



Wikileaksek Internet baliatu zuen espioitza masiboa eta boterearen gehiegikeria salatzeke. Emanuele CREMASCHI | GETTY IMAGES

NONDIK HASI TEKNOPOLITIKA LANTZEN ANTOLAKUNDE BATEAN?

Teknopolitikari lotutako gaiak edozein erakundeetan txertatzeko bideak diseina daitezke. Diagnostiko batekin hastea litzateke egokiena, baina hori ez da nahikoa izaten.

Lehenik eta behin, aztertu zure antolakundea eta haren ekosistema zeharkatzen dituzten tentsio politiko, sozial eta kulturalak eta horietan guztietan teknologiaren papera. Zein dira parte-hartze demokratikoaren oztopoak? Zein teknologia erabiltzen dira jada? Nola erabiltzen dira? Zein askatasun/kontrol maila ematen digute? Jakintza teknikoa barneratua dugu erakundean? Zeinek ditu gai hauen inguruko ardura? Ardura hori partekatua da?

Bigarrenik, zehaztu helburua: barne-prozesuak hobetu nahi dituzue (parte-hartze bidezko erabakiak, adibidez), kanpoan eragin nahi duzue (kanpainak, mobilizazioa), ala elkarlan edo babes-sareak sortu?

Hirugarrenik, software librea eta teknologia irekiak erabiltzen hasi. Ez da soilik kontu

teknikoa, politikoa ere bada: autonomia teknologikoa eskaintzen du, auditatzeko aukera eta plataformekiko mendekotasuna saihestuz. Adibideak: Mastodon, Nextcloud, Jitsi, besteak beste.

Laugarrenik, aurrez aurrekoa eta digitala uztartzeko egiturak sortu. Erabili foro, kanal ireki, batzar birtualak. Sustatu “kode irekiko” kultura antolakuntzan: dokumentu publikoak, erabaki kolektiboak, metodologia partekatua.

Bosgarrenik, kultura digital kritikoan trebatu. Prestatu jendea segurtasun digitalean, hacker etiketan, autokudeaketa teknologikoan eta sareen erabilera estrategikoan. Teknopolitika ez da inprobisatzen: praktikaz, kontzientziaz eta disziplinaz eraikitzen da.

Azkenik, ebaluazioa egin behar da. Emaitzak ez dira soilik datu teknikoetan neurtzen (erabiltzaile kopurua, bisitak), baizik eta ahalduntzean, eztabaida kolektiboan, justizia sozialean eta botere-harremanen eraldaketan.



Maite ORONOZ

Donostiako EHUko Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria

Eta adimen artifiziala erabiliko bagenu gure osasuna hobeto ulertzeko?

Medikuen idazkerak beti izan du fama txarra. Pazienteari kasu ganoraz egiteko, idazteko denbora gutxi dute, eta hori

izan daiteke garai batean haien letra ez ulertzearen arrazoietakoa bat. Hori horrela da orain ere, denok nahiko genukeena baino denbora gutxiago dute, baina pazienteok letraren ulergarritasunarekin ez dugu jada arazorik, ordenagailua erabiltzen baitute osasun-txostenak idazteko. Gure osasunari buruz esaten digutena ulertzeko, ordea, baditugu oraindik bestelako buruhaustekak.

Medikuntzan erabiltzen den hizkuntza zaila da kaletar arruntontzat, oso teknikoa baita. Tamalez, zailtasun hau erakusteko euskarazko adibideak topatzen saiatu naizenean, nekez topatu ahal izan ditut, oraindik osasun-langile euskaldunek lantokian euskaraz idazteko aukera gutxi baitute. Hori, adimen artifizialari esker, Itzulbide itzultzaile neuronala tarteko, konpontzeko bidean gaude. Osasun-langileek euskaraz idatzi ahaliko dute, eta erdaradunek osasun-txostena gaztelerara itzuliko dute.

Eta adimen artifizialak, horrez gain, hizkuntza teknikoak ulertzen lagunduko baligu? Aurrekoan CLARA-MeD proiektuaren berri izan nuen. Proiektuan “*hallux valgus*” moduko termino konplexuak testuan markatu eta termino sinpleago batekin, kasu honetan “*juanete*” (euskaraz juanikote) hitzarekin, ordeztzeko aukera proposatzen dute. Horrez gain, osasun alorreko testuen sinplifikazio automatikoa egiteko asmoa dute, hau da, adierazpen bat edo egitura bat ulertzeko errazagoa egiteko helburua dute.

Hizkuntza-teknologietako kongresuetan, “ataza partekatua” izeneko

lehiaketak ohikoak dira. Antolatzaileek ariketa bat proposatzen dute, testu-bilduma bat eskaintzen dute eta parte-hartzaileak haien artean lehiatzen dira programa eta hurbilpen ezberdinak erabiliz emaitzarik hobereena lortzeko. Aurten, atazetako batean, helburua pazienteen galderei erantzutea izan da, ebidentziak osasun-txostenetatik erauziz. Adibidez, demagun pazienteak galdera hau egiten duela:

«Nire 59 urteko aita larrialdietara eraman nuen, eta ekografia bidez aortako aneurisma bat zuela aurkitu zioten. Salbamendu-konponketa bat egin zioten (hodi-txertoa). Zergatik egin zioten ebakuntza hau?»

Ariketan osasun-txostenekin osatutako datu-bilduma bat aztertu eta erantzun hau espero da:

«Bere aortako aneurisma aorta torako abdominaleko aneurisma baten hausturak eragin zuen, eta horrek larrialdiko kirurgia esku-hartzea behar izan zuen. Konponketa konplexu bat egin zioten 34 mm-ko Dacron mentu tubularra eta zirkulazio-geldiera hipotermiko sakona erabiliz, haustura konpontzeko».

Kasu honetan, sistema adimendun bat sortu ahaliko litzateke, gure osasunaren inguruan ditugun duden inguruan galdetu ahal izateko. Eta galdetarak egiteko tresna eta hizkuntza sinplifikatzeko gai dena bateratuko bagenitu, eta euskaraz erabili?

Orduan, gure osasunaren inguruko dudak ulertzen laguntzeko tresna baliagarria izango genuke... baina hori litzateke... laguntza-tresna, eta ez medikua. •



Sendagileen idatziak ulergarriago egiten lagundu dezake adimen artifizialak. Roman SHASHKO | GETTY

BEHATXULO[TIK

Juantxo EGAÑA



DONIBANE GARAZIKO ARGAZKIRIK ZAHARRENA

Segur aski, hau da ezagutzen den Donibane Garaziko argazkirik zaharrena. Irudia 1858an hartu zen, argazkilaritza asmatu eta 19 urte eskasera, eta egilea Farham Maxwell Lyte (1828-1906) argazkilari eta kimikari britainiarra izan zen, 1856tik Bagnères de Bigorren bizi zena. Lyte aitzindaria izan zen argazki-prozesu berrien ikerketan. "The British Journal of Photography", "Le Moniteur de la Photographie" eta "La Lumière" aldizkari espezializatueta argitaratu zituen bere ikerketak 1861 eta 1862 artean. Bere obra gutxi kontserbatu den arren, Donostia, Pasaia eta Donibane Lohizuneko argazkiak ezagutzen dira, 1858an bertan ateratakoak guztiak. Irudi horiek Estatu Batuetako, Kanadako eta Frantziako artxiboetan daude gaur egun. Urte horretan bertan, bere argazkietako batzuk "Vues, costumes et monuments des Pyrénées, copies de grands maîtres" izeneko katalogoan sartu ziren; 108 irudi biltzen zituen katalogoak. Lyte negatiboen gainjartze teknikarekin esperimentatu zuen lehen argazkilarietako bat ere izan zen, zeruak eta paisaiak konbinatuz konposizio adierazkorragoak lortzeko. XIX. mendeko 50eko hamarkadaren erdialdetik 60ko hamarkadaren hasierara bitartean, Lyteren argazkiak Société Française de Photographie-k antolatutako erakusketetarako aukeratu ziren. Elkarre horretako kide fundatzailea izan zen eta bere lanek Parisen, Londresen eta Glasgown egindako erakusketetan ere parte hartu zuten, besteak beste.

043 bidaiari

naiz: -en bidaia aldizkaria euskaraz

Lurralde
berrietara
goaz



HIRU GAZTELU BAVARIAR

Errege ero baten amets erromantikoak

hurrengo
ostiralean
zure
kioskoan
GARA rekin
doan

eta gainera...

COIMBRA

HARRI ZAHARRAK,
ARIMA GAZTEA

ABBADIA GAZTELUA

XARMA ETA HISTORIA
UZTARTZEN

INARI

GAURIK GABEKO
SAMI LURRALDEETAN

HELMUGA GORRIAK

KOLORE BAKARREKO
HARRIBITXIAK

ANGEL AGUIRRE

MUNDUA ZERUTIK
BEHATZEN

Egin planak Koldobika Jauregi, hil ondorengo lehen erakusketa; 'Saturraran' opera **Munduan pasieran** Pompidou, bost urtez itxita eraberrituta berpizteko; '4/20' Holiday, Washington Square Parkean; Udaberriko lore erakusketa, Gizan; Cai Rang Floating market, frutak eta turistak; 'Art and fashion', Louvre museoan ikusgai; Patata Frijituen Museoa; Bi geoparke berri Ekuadorren...

